

# ASTELEHENEKO Goienkaria

2007ko maiatzaren 28a > Astelehena > III. urtea > 147. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Kanpotarrek  
ibarra ezagutu  
eta bertakoek,  
kulturaz  
gozaten dute  
Mundumiran"

German  
Meabasterretxea  
> 24



## BERGARAKO JAIK

Asteburua ondo aprobetxatu dute  
jaizaleek, eguraldi txarragatik > 10-11

## ARRASATE

Eroski handitzeko asmoa salatu  
dute herriko merkatariek > 12

## BIKE-TRIALA

Benito Rosek munduko marka  
hobetu zuen Bergaran > 15

## ESKUBALOIA

Arrasateko Ford Mugarri taldeak  
kopa txapelketa irabazi du > 18

## Udal eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak 2007

HAUTESKUNDEAK 07 > GOITIK BEHERA ALDATU DIRA DEBAGOIENENKO UDALAK

# EAE-ANV eta Aralar irabazle eta EAJk Oñatin bakarrik eutsi dio

## EAE-ANV 5 HERRITAN

Arrasaten, Bergaran,  
Eskoriatzan, Antzuolan eta  
Aramaion garaile EAE-ANV

## ARALARREK GILTZA

Aretxabaletan eta Elgetan  
irabazi du Aralarrek eta  
Bergaran du giltza

## LOURDES IDOIAGA Oñatin lor

dezake EAJk alkate bakarra,  
baina Earen babesa beharko  
luke horretarako > 02-09

BERGARA > EAE-ANV GARAILE

## Barruso izan daiteke alkate



Bergarako EAE-ANVkoak pozik.

ELGETA > BIGARRENEAN BAI

## Aralarrek irabazi du Elgetan




Aralarrekoak garaipena ospatzen.

## Gipuzkoako Batzar Nagusiak

BOTOAK	ALDERDIA	%	AULKIAK
PSE-EE	76.865	%29,06	16
EAJ	71.800	%27,14	16
EB-BERDEAK			
ARALAR	36.738	%13,89	6
PP	35.027	%13,24	6
EA	34.172	%12,92	7

Errolda > 563.08.  
Boto emaileak > 337.394  
Abstentzioa > %40,08



## Zinegotzi banaketa herriz herri

ARRASATE		BERGARA		OÑATI	
	EAE-ANV 7 PSE-EE 4 EAJ 4 EB-BERDEAK/ZUTIK 3 EA 1 PP 1 ARALAR 1		EAE-ANV 6 EAJ 5 ARALAR 3 PSE-EE 2 EA 1 EB-BERDEAK 0 PP 0		EAJ 8 EB-BERDEAK/ ARALAR/ZUTIK 4 EA 3 PSE-EE 1 PP 1
ARETXABALETA		ESKORIATZA		ANTZUOLA	
	ARALAR 4 EA 3 EAJ 3 PSE-EE 2 EB-BERDEAK/ZUTIK 1 PP 0		EAE-ANV 4 EAJ 2 EA 2 PSE-EE 1 ELIZATEAK 1 EB-BERDEAK/ARALAR 1 PP 0		EAE-ANV 5 EAJ 3 ZUTIK/EB-BERDEAK 2 ARALAR 2 PSE-EE 1 PP 0
ARAMAIO		ELGETA		LEINTZ GATZAGA	
	EAE-ANV 5 EAJ 3 EA 1 EB-BERDEAK 0 PSE-EE 0 PP 0		ARALAR 4 ELGETAKO ABERTZALEAK 3 EAE-ANV 2		LEINTZ GATZAKO HAUTESLE-ELKARTEA 7 PP 0

## AURKIBIDEA

Debagoiena > 02-011

Iritzia > 13-14

Kirola > 15-21

Kultura > 23-27

Sailkatuak > 28

Irrati-Telebista eta

Hitzorduak > 29

Berri-zakua > 30-31

Azkena > 32

## Botoak eta zinegotziak Debagoiengan

ALDERDIA	BOTOAK	%	ZINEGOTZIAK
EAE-ANV**	9.389	29,26	29
EAJ	7.193	23,07	28
EB-BERDEAK/ARALAR/ZUTIK*	5.877	18,31	23
PSE-EE	3.868	12,05	11
EA	3.101	9,66	11
PP	1.444	4,50	2
ELIZATEAK	233	0,72	1
ELGETAKO ABERTZALEAK	209	0,65	3
LEINTZ GATZAGAKO HAUTES-ELKARTEA	120	0,37	7

\* EB-Berdeak/Aralar/Zutik alderdien botoak batera zenbatu ditugu. Halere, koalizioa herri bakoitzean modu batera aurkeztu da eta kasu batzuetan Aralar eta EB-Berdeak bakarka ere bai.

\*\*EAE-ANV Debagoiengan lortu dituen boto guztiak zenbatu ditugu. Baina, kontuan izan behar da, Oñatikoa eta Aretxabaletakoak baliogabeak direla.



**SUPER  
AMARA**


Super Amaranen partetik  
Ondo Ibili  
Mendekosteetan!

San Lorenzo Poligonoa.  
Amillaga kalea, 18 - BERGARA.  
P Bezeroentzako Aparkalekua

## Arrasate

EAE-ANV: 7 &gt; PSE-EE: 4 &gt; EAJ: 4 &gt; EB-Zutik: 3 &gt; EA: 1 &gt; PP: 1 &gt; Aralar: 1

## EAE-ANVk eskuratu du garaipena, askok uste baino alde handiagorekin, gainera



## di-da batean

Ubane Madera

Gehiago nabarmena, baina ez osoa

EAE-ANVk emaitza oso positiboak eskuratu ditu. Hala ere, 11 zinegotzi behar ditu udal gobernuan gehiago osoa lortzeko; beraz, lagunak beharko ditu aurrera begira. Gainerako alderdiei begiratuta, EB-Zutik izan ezik, besteek behera egin dute. Zigorrik handiena, baina, EAJk eraman du.


## ESANAK

- > **Ino Galparsoro** > EAE-ANV > "Pozik gaude, baina gazi-gozoa da poztasuna, leku gehienetan ezin izan dute-eta bozkatu".
- > **Paco Gartzia** > PSE-EE > "Lortu dugu jarraitzea bigarren indarra izaten; dena den, ez gara gauza izan mezua transmititzeko".
- > **Luis Mari Apraiz** > EAJ > "Abstentzioak gure kontra egin du, eta gelditu gara espero baino apur bat beherago".
- > **Joseba Ugalde** > EB-Zutik > "Oso pozik gaude, hiru zinegotzi mantentzea lortu dugulako; gainera, bototan gora egin dugu".
- > **Pello Urizar** > EA > "EAEk izan ezik, guztiok galdu dugu; orain, lan egitea tokatzen zaigu".
- > **Itziar Lamarain** > PP > "Gure aldeko eskola askotan abstentzio handia izan da; dena den, ez dugu irabazi, eta sentitzen dut".

## Bergara

EAE-ANV: 6 &gt; EAJ: 5 &gt; Aralar: 3 &gt; PSE-EE: 2 &gt; EA: 1

## Eusko Abertzale Ekintza garaile eta gobernu osatzeko giltza Aralarrek izan dezake



## di-da batean

Edu Mendibil

Jaietan biharamunik ez EAE-ANVkoek

Bergaran jaiak izanik, ederki ospatu dituzte EAE-ANVkoek atzoko emaitzak. Beste egoitza batzuetan ez dute xanpaina hozkailutik ateratzerik izan. Jaietan biharamuneari hasiko dira gobernu osatzeko dantzak. Bestalde, hauteskundeak jaietan izateak zerikusia izan du abstentzioa igotzeko.

## ESANAK

- > **Agurne Barruso** > EAE-ANV > "Lasaitasunez eta, aldi berean, erantzukizunez hartzen ditugu emaitza bikain hauek".
- > **German Muruamendiaraz** > EAJ > "Gure galeraren arrazoiak aztertu beharko ditugu; orekatuta geratzen da udalbatza".
- > **Mari Karmen Barrenetxea** > PSE-EE > "Gure helburua bete dugu bi zinegotzi lortzean; oso pozik gaude emaitzekin".
- > **Lauri Askargorta** > EA > "Bigarren zinegotzia lortzea espero genuen, baina ezin izan da. Aralarrek du gobernurako giltza".




Oñati

EAJ: 8 > EA: 3 > PSE-EE: 1 > EB-Aralar-Zutik: 4 > PP: 1

## EAJ alderdiak lortu du gehiengoa baina ezkerrek nabarmen egin du gora

 EAJ Lourdes Idoiaga	 EAJ Ainhoa Galdos	 EAJ Anjel Biain	 EAJ Andoni Gartzia	 EAJ Rosarito Galdos	 EAJ Jose Mari Igartua	 EAJ Felipe Lizaur	
 EAJ Mikel Iturrospe	 EB-ARALAR Karmelo Perez	 EB-ARALAR Miren Arregi	 EB-ARALAR Jose Ruiz	 EB-ARALAR Manu Egaña	 EA Ernesto Murgiondo		
 EA Amaia Intza	 EA Iñaki Galdos	 PSE-EE Blanca Roncal	 PP Julio Perez de Arriluzea	<b>ABSTENTZIOA</b> Abstentzia handia izan da, %38,09koa zehazki		<b>NORMALTASUNA</b> Hauteskunde egunean ez zen aparteko bitxikeriarik izan	



ZINEGOTZI KOPURUA BALIOGABEAK ONARTUKO BALIRA

### EAJk jarraituko luke lehenengo

EAE-ANVren botoak zenbatuta ere, EAJk garbi irabaziko luke Oñatin, zinegotzi bat gutxiagorekin. EAE-ANVk bigarren indar izaten jarraituko luke, eta lehen izango zitzuzkeen lau zinegotzietatik eutsiko lieke. Gainerako alderdiek zinegotzi bat gutxiago lukete.

	2007
EAJ	7
EAE-ANV	4
Oñati Ezkerretik	3
EA	2
PSE	1
PP	1

ESANAK

- > **Lourdes Idoiaga** > EAJ > "Boto gehien ditugu, baina abstentzia eta azkenaldiko egoera politiko nahasia igarri ditugu".
- > **Marijo Altube** > EAE-ANV > "Bigarren indarra izaten jarraitzen dugu. Legezkoak bagina, emaitza ezberdina izango zen".
- > **Karmelo Perez** > EB-Zutik-Aralar > "Argi gelditu da oñatiar gehien botoak ezkerrean egiten duela".
- > **Ernesto Murgiondo** > EA > "Oñatin ere igarri da EAJ eta EA ez garelako elkarrekin joan. Zorionak Lourdesi".
- > **Blanca Roncal** > PSE-EE > "Genuen zinegotzia mantendu dugu eta lanerako gogoz noa Oñatira".

Aretxabaleta

Aralar: 4 > EA: 3 > EAJ:3 > PSE-EE: 2 > EB-Zutik: 1


## Aralar izan da lehena, legez kanpo dagoen EAE-ANVk boto gehien jaso dituen arren

 ARALAR Inaxio Garro	 ARALAR Joxe Angel Antxia	 ARALAR Araceli Herran	 ARALAR Jon Ander Loidi	 EA Lore Martinez	 EA Edorta Mendieta	 EA Andres Lezeta
	 EAJ Arritxu Olliden	 EAJ Juanan Gutierrez	 EAJ Neida Gabilondo	 PSE-EE Ainhoa Sagarribai	 PSE-EE Angel Sagarribai	 EB-ZUTIK Tomas Fernandez

**POZIK** Botoen nondik norakoa jakin berri, EAE-ANV alderdiek erakutsi zuten atzo poztasun handiena

**EAJ-PNV** Duda barik, alderdi horrek jaso zuen atzo kolperik gogorrena; aurretik ditu Aralar eta EA

**ABSTENTZIOA** Atzo 2.426 lagun geratu ziren botoa eman barik; orain dela lau urte baino 1.523 gehiago



ZINEGOTZI KOPURUA BALIOGABEAK ONARTUKO BALIRA

### EAE-ANVk irabaziko luke Udala

EAE-ANV 839 boto jaso ditu Aretxabaletan; horiek onartuko balira, garbi irabaziko luke alderdi horrek, eta lau zinegotzi izango lituzke. Hurrengoek aulki bat galduko lukete, PSE-EEk eta PPK izan ezik; horiek emaitza ofizialen berberak izango lituzkete.

	2007
EAE-ANV	4
Aralar	3
EA	2
EAJ	2
PSE-EE	2
EB-Berdeak	0
PP	0

ESANAK

- > **Arritxu Olliden** > EAJ-PNV > "Emaitza oso txarrak izan ditugu; EA banandu izana oso kaltegarria izan da guretako".
- > **Inaxio Garro** > Aralar > "Herri mailan oso balorazio ona egiten dugu; kontziente gara ANVk zenbat boto jaso dituen".
- > **Lore Martinez** > EA > "Oso pozik gaude, besteak beste, EAJk baino boto gehiago ditugulako. Lanean hasteko gertu gaude".
- > **Anjel Bergaretxe** > EAE-ANV > "Beste alderdiek erabaki beharko dute herriari entzun, ala Espainiako legeari kasu egin".
- > **Ainhoa Sagarribai** > PSE-EE > "Balorazio positiboa egiten dugu, bigarren zinegotzia berreskuratuko dugulako".

### Eskoriatza

EAE-ANV: 4 > EAJ: 2 > EA: 2 > PSE-EE: 1 > EB-Zutik-Aralar: 1 > Eskoriatzako Elizateak: 1 > PP: 0


## EAE-ANVk lortu du boto gehien eta lau zinegotzi izango ditu Udalean



**ABSTENTZIOA** Duela lau urteko datuekin alderatuz, 9 puntu egin du gora abstentzioak Eskoriatzan

**BEHERAKADA** Alderdi Popularrak botoen erdiak baino gehiago galdu ditu: 123tik 53ra jaitsi da

**GEHIENGORIK EZ** EAE-ANV alderdiak boto kopuru gehien jaso arren, negoziazioak erabakiko du Udala



### di-da batean

Txomin Madina

#### EAE-ANVk Udala irauli du

Duela lau urteko emaitzak eta aurtengoak alderatuz gero, eskoriatzarren erabakiak goitik behera aldatuko du Udalaren osaketa. EAE-ANVk norekin ezkondu erabaki beharko du; andregairik ez zaio faltako. PPK, aldiz, sekulako porrota izan du: 2003an izandako botoen erdiak eskuratu ditu.


#### ESANAK

- > **Pedro Lasagabaster** > EAE-ANV > "Pozik gaude emaitzarekin. programa jendea kontutan hartuta egin izanak fruituak eman ditu".
- > **Juan Karlos Bengoa** > EA > "Uste baino emaitza kaxkarragoak lortu ditugu, ez dugu jakin izan lau urtetako lana jendeari erakusten".
- > **Aitor Urrutia** > EAJ > "Abstentzioak eta EArekin koalizioan ez joateak kalte egin digu".

### Antzuola

EAE-ANV: 5 > EAJ: 3 > Zutik-EB-Aralar: 2 > PSE-EE: 1 > PP: 0


## EAE-ANVk irabazi du, botoen %40ekin, eta EAJk beherakada nabarmena izan du



**ZUTIK-EB-ARALAR** Koalizio berriak hasiera ona izan du: botoen %16,8 lortu du, eta bi zinegotzi izango ditu

**EAJ BEHERA** 2003an 615 boto lortu zituzten jeltzaleek; orain, berriz, 370 boto jaso dituzte

**ALDAKETA HANDIA** Udalbatzak aldaketa handia izango du; lau alderdik izango dute ordezkartza Udalean



### di-da batean

Aintzane Irizar

#### Udalbatza guztiz berritu zaigu

Guztiz aldatuko zaigu Udalaren osaketa; azkeneko lau urteotan EAJ-PNV eta PSE-EE izan dira ordezkartza izan duten bakarrak; orain, lau alderdiren artean banatuko dituzte 11 eserlekuak. Dena dela, inork ez du gehiengo osorik lortu eta horixe izango da gakoa oraingo agintaldian.

#### ESANAK

- > **Pedro Iturbe** > EAE-ANV > "Herriak jakin du eskertzen herri programa osatzeko herriari entzun izana; bestalde, lau urteotako Udalaren kudeaketa zigortu du".
- > **Basili Ormazabal** > EAJ > "Herriak ez du baloratu guk egindako lana. Botoa oso politizatuta dago".
- > **Pilar Etxaniz** > Zutik-EB-Aralar > "Irekita gaude denekin lan egitera; udalbatza anitza osatu da, eta hori positiboa da".
- > **Paco Morcillo** > PSE-EE > "Garrantzitsuena da herriak bozkatu duela eta alderdi guztiok izango dugula ordezkartza".



## Elgeta

Aralar-Independenteak: 4 > Elgetako Abertzaleak: 3 > EAE-ANV: 2 > PSE-EE: 0 > PP: 0

# Oxel Erostarbek jaso du Elgetako boto emaileen babesa, Patxi Basauriren aurretik



### 43 BOTOKO ALDEA


Duela lau urte, bost botorra gelditu zen Erostarbe; orain, 43 gehiago lortu ditu

### GEHIENGO OSORIK EZ

Aralarrek 4 zinegotzi, Elgetako Abertzaleek 3 eta EAE-ANV 2 izango dituzte agintaldi berrian

### LAU EMAKUME

Elgetako osokoa izango den beste aldaketa: lau eserleku emakumeendako



## di-da batean

Larraitz Zeberio


Aldaketa eskatu dute elgetarrek

Patxi Basauri izan da Elgetako alkate azken 31 urteotan, baina herriak aldaketa eskatu du orainoan. Oxel Erostarbek esan du adostasunetara heltzen saiatuko dela. Ikusiko dugu hori posiblea den. Panorama politikoa inoiz baino interesgarriago dago Elgetan. Orain bai, kolore aniztasuna!

## Aramaio

EAE-ANV: 5 > EAJ: 3 > EA: 1


# EAE-ANVk gehiengoa lortu du Aramaioko Udalean eta bost zinegotzi izango ditu



## Leintz Gatzaga

Leintz Gatzagako Hautes-Elkartea: 7 > PP: 0

# Sorpresarik ez eta nagusi Hautesleen elkarte



ESANAK

> **Asier Agirre** > EAE-ANV > "Pozik gaude lortutako emaitzarekin. Herriari eskerrak eman nahi dizkiogu. Hauteskundeak irabazi ditugu eta pozik gaude, baina orain lanerako ordua iritsi da. Hori da herriari eskerrak emateko modu onena".  
> **Iñaki Nafarrate** > EAJ > "Irabazleak zoriondu nahi ditugu. Herriak aldaketaren aldeko botoa eman du aurtengoan, eta hori errespetatu egin beharra dago. Orain, aztertu egin beharko dugu Udalaren eraketa nola egin".  
> **Andres Osinaga** > EA > "Hauteskundeak herritarren epaiketa dira eta ezin da balorazioarik egin horren inguruan".

ESANAK

> **Eusebio Villar** > Leintz Gatzagako Hautes-Elkartea > "Oso pozik gaude, zazpi zinegotzi lortu ditugu-eta. Lau urteotan lanerako gertu gaude. Herritarren zerronda bakarra izan gara eta hori emaitzetan ikusi da. Botua 140 lagunek eman dute, eta erdiak, 120 boto, hain zuzen ere, eskuratu ditugu".



UDALAK ETA BATZAR NAGUSIAK &gt; BIEN ARTEKO ALDEA

# EAJk, PSE-EEK, EAK eta PPK Batzarretara boto gehiago Udaletara baino

ENEKO AZKARATE &gt; BERGARA

Bi kartazal eta bi hautestontzi; hau da, bi aukera. Atzoko hauteskundeetan udaleko ordezkariak eta batzarkideak aukeratu genituen.

Debagoieneko datuak begiratzaren baditugu, ondorio hauek atara ditzakegu: EAE-ANV eta EB-Berdeak-ek, Aralarrek eta Zutikek osatutako koalizioak Udaletarako

jaso dituzte batzarretarako baino boto gehiago. EAE-ANVren kasuan, logikoa da: izan ere, Udaletara herri gehienetan balekoak zituzten botoak; eta batzarretara baliogabeak. Gainerako alderdiek (EAJ, PSE-EE, EA eta PP) gehiago jaso dituzte batzarretarako Udaletarako baino. Horiek dira Gipuzkoako Batzar nagusietako alderdi indartsuenak.

## Botoak Debagoiengan

ALDERDIA	UDALETARA	BATZARRETARA	ALDEA
EAE-ANV	9.389	8.444	-945
EAJ	7.193	7.653	+460
EB-BERDEAK/ARALAR/ZUTIK	5.877	5.167	-710
PSE-EE	3.868	4.249	+381
EA	3.101	3.519	+418
PP	1.444	1.541	+97

\*\*EAE-ANV Debagoiengan lortu dituen boto guztiak zenbatu ditugu. Baina, kontuan izan behar da, Oñatikoak eta Aretxabaletakoak baliogabeak direla.



Mikel Irizar &gt; Analista

## Ardatza

Hauteskundeotan, aginte maila eta atalen banaketa ez da gehienetan automatikoa izaten, baizik akordioei lotua. Goazen atalka:

Nafarroan UPN eta CDN batuta ez dira gehiengo osora iristen. Beraz, alderetarako aukera badago, eta ez bakarrik Miguelico etxera bidaltzeko. Elkarbizitza bera izan daiteke orain helburu.

Nola edo hala, Batasunak eutsi egin dio bere boto zakuari, eta berreskura ditzake alkatetza esanguratsuak. Horrela, jarraitzen du ezinbesteko solaskide izaten, konponbiderako hurrengo ahaleginean.

### "Emitza honekin badirudi EAJ-PSE-EE izango dela hurrengo aldirako ardatza"

PSE-EEK gaina hartu dio PPri toki gehienetan, Madrilgo alternantziaren arabera. Gaietan egonda, errazago izan dakioke konponbide aldirako bilakaera.

EAJ jaten ari zaio EARI esparru partekatua. Eta bien artean ez dira iristen koalizioaren maila onenera.

Emitza horiekin, badirudi EAJ-PSE-EE izango dela hurrengo aldirako ardatza. Adi, ordea: Irlandan ardatz horrek ez zuen konponbiderik ekarri.



GOIENKARIA

## EAE-ANVren botoak kontatuta, gure barrutian, lau batzarkide lituzke

EAE-ANVren Deba-Urola barrutiko botoak kontuan hartu izango balira, barruti horretan lau ordezkari lortu izango zituzkeen alderdi horrek. Tartean, Iñigo Louvelli Aretxabaletan bizi den alderdikidea izango zitekeen. Louvelli hirugarren zegoen Deba-Urola barrutian. Beste debagoiendar batzuk ere goialdeko postuetan zeuden: hala, Agurtzane Diaz Urubide bergararra bosgarren zen, eta Ino Galparsoro -argazkian, bozkatzen-, zazpigarren.

## DEBAGOIENEN BATZARKIDEAK

Rebeka Ubera  
Aralar

Elgetarra. 35 urte. Haur Hezkuntzan eta Heziketa Fisikoan diplomaturia da. Eskoriatza eskolako irakaslea da eta, orain, eszedentzian dago. Bi seme ditu. Gipuzkoako Batzar Nagusietako Aralar taldeko bozeramailea eta bere herriko zinegotzia izan da azken agintaldi honetan.

Iñaki Galdos  
EA

Oñati (1966). Euskal filologoa. Irakaskuntzan eta komunikabideetan jardun du lanean. Oñatin zinegotzia da 1995az geroztik. Eusko Legebiltzarkidea (1999-2001). Gipuzkoako EAKo presidentea da 2001etik eta alderdiko bozeramailea izan da Gipuzkoako Batzar Nagusietan.

Ainhoa Galdos  
EAJ

41 urteko oñatiarra. Eli Galdos jeltzalea zenaren alaba da. Donostiako kontserbatorioan goi mailako piano ikasketak egin zituen. Gaur egun, Oñatiko musika-eskolan irakasle da. Bi alaben ama da. Bere herriko Udalean euskara zinegotzia izan da azken agintaldi honetan.

Paco Gartzia  
PSE

Fagorreko langilea, eszedentzian. 54 urte. Hiru seme-alaba ditu. Arrasateko PSE-EEko idazkari nagusia da, eta Gipuzkoako Exekutibako kidea ere. Arrasateko Udalerako zerrenda-buru bezala aurkezten den bigarren aldia da. Azken agintaldian batzarkidea izan da Gipuzkoan.


Ander Rodriguez  
Ezker Batua-Berdeak

Arrasate (1983). Historia ikasketak bukatzeke dauka eta aurtenguzuzen bidea ikasteari ekin dio. Goiz hasi zen politikagintzan. 17 urte zituela Ikasleen Sindikatuan sartu eta urtebete beranduago, Ezker Batuan. 20 urterekin, zinegotzia irten zen jaioterrian. Taldeko exekutiban dago iaiztik.



## Gipuzkoa

### GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK



PSE-EE: 16 > EAJ: 16 >  
EA: 7 > Ezker Batua-Berdeak-  
Aralar: 6 > PP: 6

### ZINEGOTZIAK DONOSTIAN

PSE-EE	11
PP	6
EAJ	5
EB-Berdeak-Aralar	3
EA	2
GUZTIRA	27

Martin Garitano > Bergara > 'Gara'-n egiten du lan eta Donostian bizi da

## "Ezker abertzalea oso indar garrantzitsua dela ikusi da"

GOIENKARIA > DONOSTIA  
"Donostiako emaitzak baloratzeko uanean, kontuan hartu behar da indar politiko garrantzitsu bat lege kanpo utzi dutela eta, hala ere, oso emaitza onak lortu dituela. Gipuzkoako Batzar Nagusietan

gertatu dena baloratzeko ere, Gipuzkoako udalerrietako emaitzei begiratu behar zaie, eta horrela, ikusten da EAJ eta EA oso modu nabarmenean jaitsi direla, eta ezker abertzaleak, leku askotan, erabakiteko gehiengo lortu duela,


eta beste askotan, lehenengo indarra dela. Horrenbestez, ezker abertzalea oso indar garrantzitsua dela ikusi da, eta Gipuzkoako mapa politikoa ez da erreala izango, bozka asko baliorik gabe utzi dituztelako".



GOIENKARIA

## Araba

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK



EAE-ANV: 4 > EAJ: 14 >  
EA: 2 > PSE-EE: 14 >  
EB-Aralar: 2 > PP: 15

### ZINEGOTZIAK GASTEIZEN

PSE-EE	9
PP	9
EAJ	6
EB-ARALAR	2
EA	1
GUZTIRA	27

Felix Iriarte > Aretxabaleta > 'Noticias de Gipuzkoa'-n zutabegile eta Legutien bizi da

## "Gasteizen PSE-EEK izan duen gorakada ez nuen espero"

M.B. > BERGARA  
PSE-EE igo egingo zela bazekien Felix Iriarte kazetariak. Estatu espainiarrean PP-rekin dituen liskarrak eragina izango luketeela uste zuen. Hala ere, Gasteizko Udalean lortutako gorakada ez

zuen espero. Arabako hiriburuan ez duela inoiz alkatetza izan gogoratu du. Arabako Batzar Nagusietan aurreikuspenak bete egin direla jakinarazi du kazetari aretxabaletarrak. EAJ-PNV eta EA koalizioan aurkeztu izan


balira, garaile irtengo zirela aipatu du. EAE-ANV-k lortutako lau batzarkideak ere azpimarratu ditu. Gasteizko Udaleko alkatetzan PSE-EEKo Patxi Lazcoz eta Batzar Nagusietan Xabier Agirre jeltzalea ikusten ditu Iriartek.



GOIENKARIA

## Bizkaia

### BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK



EAJ: 23 > PSE-EE: 14 > PP: 8 >  
Ezker Batua-Berdeak-Aralar: 4 >  
EA: 1 > EAE-ANV: 1

### ZINEGOTZIAK BILBON

EAJ	13
PP	7
PSE-EE	7
EB-Berdeak-Aralar	2
GUZTIRA	29

Fermin Etxegoien > Oñati > Irratiko kazetaria da, eta Bilbon bizi da

## "Ez da ezusterik egon, eta EAJ lehenengo izan da"

GOIENKARIA > BILBO  
"Bilbon, eta Bizkaia osoan ere, ez da ezusterik egon: EAJk hemen lehenengo izaten jarraitzen du, eta, espero zituen bezain emaitza onak izan ez dituen arren, erosotasunez irabazi du. Beste datu dei-

garri bat da PSE-EEK izan duen gorakada oso garbia. Hala, leku gehienetan igo egin da, eta asko berreskuratu egin ditu, Ezkerraldean, esaterako. Bestalde, garbi ikusten da Eusko Alkartasunak oso presentzia txikia duela Bizkaian,


eta lurralde honetan ezer gutxi dela: hala, Batzar Nagusietan zituen bost ordezkarietatik lau galdu ditu, eta Bilboko Udalean zeukan bakarra. Ezker Batuari dagokionez, oso alderdi gorabeheratsua da hemen".



GOIENKARIA

## Nafarroa

### NAFARROAKO PARLAMENTUA



UPN: 22 > Nafarroa Bai: 12 >  
PSN-PSOE: 12 > IUN-NEB: 2 >  
CDN: 2

### ZINEGOTZIAK IRUÑEAN

UPN	13
NAFARROA BAI	8
PSN-PSOE	4
ANV	2
GUZTIRA	27


Xabier Letona > Arrasate > 'Argia' astekariko zuzendaria da

## "Ez da aldaketa nabarmenik izan Nafarroan eta Iruñean"

I.A. > BERGARA  
"UPNk gehiengo osoa ez du lortu, baina zaila ikusten dut NBK, PSNk eta EBK koalizioa osatzea. Batetik, PSN hirugarren indar politikoa delako eta bestetik hemendik urtebetera Espainiako hauteskunde

orokorrak direlako. UPNk eta PSNk koalizioa osatzea ere aukeren artean lego, baina aukera zaila da oso. Beraz, gehiengoan ez izan arren bakarrik gobernatuko du seguru aski UPNk. Iruñeko Udalean ere UPN izan da nagusi.

Gainontzeko alderdien artean koalizioa osatuko balute 14 zinegotzi lituzkete eta gehiengo apurtuko lukete, baina PSNk EA Erek ez du koaliziorik osatuko. Beraz, Iruñerako espero zitekeen aldataririk ez da izango".



GOIENKARIA

Erantzun webgunean eta iPod bat irabazi!



Non dago kokatuta  
Arizmendi Ikastolako LANBIDE HEZIKETA?

[www.arizmendi.ikastola.net/lanbide](http://www.arizmendi.ikastola.net/lanbide)

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketa

**A**  
Arizmendi  
ikastola



# Gorabehera handirik

## BOTO ESKUBIDEA

Debagoiengan, 52.232 herritarrek zuten botoa emateko eskubidea; horretarako, 85 mahai egokitu zituzten

## ALKATEGAIK

Guztira, 52 alkategai ziren atzokoan ibarrean: gutxien, Gatzagan, bi; gehien zuten herriek zazpi zituzten aukeran

## NORMALTASUNA

Hautesmahaietan ez zen inolako istilurik izan egunean barrena, bitxikeriaren bat edo beste gertatu zen arren



OSPAKIZUNAK Ino Galparsoro, Arrasateko EAE-ANVko zerrendaburua, jarraitzaileekin garaipena ospatzen.

UBANE MADERA



OÑATIKO EAJ Jeltzaileek pozik ospatu zuten batzokian Oñatin izandako garaipena.

JOSETXO ARANTZABAL



PATXI BASAURI Elgetako alkate izan denak (ezkerrean) kargua utzi beharko du.

JOSETXO ARANTZABAL

### ZER ESKATUKO ZENIOKE ALKATE BERRIARI?



**Begoña Odriozola**  
Bergara

Herrian ordena ipini dezala, lehenengo: garbiketari dagokionean, gazteen artean... Gazteak lokaletan elkartzen dira, eta hortik edozer gauza etor liteke. Kontrol pixka bat ez legoke gaizki.



**Aitor Larrakoetxea**  
Bergara

Gauzak garbi eta herriarendako egitea, nire ustez euren dako egiten dituzte eta. Herriak konpontzeko premia du ere. Erdialdea nahiko ondo dago, baina auzoetan asko dago egiteko.



**Gurutze Murua**  
Oñati

Herriaren beharren alde lan egitea eskatuko nioke alkate berriari. Herritarrekin pentsatu behar dute, azken finean, gu gara-eta eurak aukeratzen ditugunak.



**Manolo Gonzalez**  
Oñati

Udaleko arduradunekin arazo bat izan dut, eta horri irtenbidea emateko eskatuko nioke alkate berriari. Dagoeneko, ez dut demokrazian sinisten; hortaz, ez dut botorik eman.



**Isabel Ezenarro**  
Bergara

Denok nahi dugu bakea eta konpon dadila egoera hau. Jendeak gogo handia dauka, eta nik uste, aldaketa etorriko dela. Premia handia da, lehengora bueltatuko baikara bestela.



**Gaizka Jainaga**  
Bergara

Hauteskundeongatik, ez dut uste. Alderdi batzuk legez kanpo uzteak eragin negatiboak izan ditzake. Baina politikoak motibatu artean, betiko saltsan jarraituko dugula iruditzen zait.



**M. Kruz Galdos**  
Oñati

Esperantza dagoen bitartean... Baina asko kostatzen ari da bakea eta normaltasun politikoa lortzea. Lana egin beharko dute, baina ziur nago ez dela erraza izango.



**Ainhoa Iturbe**  
Oñati

Galdera horren aurrean, oso ezkorra naiz. Egia esan, ez dut uste, epe motzera, aldaketa nabaririk ikusiko dugunik. Egia da, baita ere, esperantza ez dela galdu behar.

### ALDATUKO DIRA GAUZAK HAUTESKUNDE OSTEAN?



# ez bozketa egunean



EZKER BATUA Ander Rodriguez, botoa ematen.

GOIENKARIA



EUSKO ALKARTASUNA Juan Carlos Bengoa, irudian.

GOIENKARIA



JOSETXO ARANTZABAL



LURDES IDOIAGA EAJko Oñatiko alkategaia.

GOIENKARIA



PACO GARTZIA Arrasateko PSEko alkategaia.

GOIENKARIA

## Posta bidezko botoak erosten

Bergarako Mendekoste jaiek bat egin dute aurtengoan hauteskunde egunarekin. Batzuk parranda giroan ibili direlako, eta beste askok kanpora joateko ohitura dutelako, aurtengoan posta bidezko botoa ematea erabaki dutenak gehiago izan dira.

Normalean, 300-400 lagunek bozkutzen dute postaz. Bada, atzo, milatik gora bergararrek aukeratu zuten bozkatzeko bide hori.

### > KABINAK HUTSIK Boto-txartelak mahai gainean zeuden herritarren eskura

Hauteskunde eguna iritsita, alderdi guztietako boto-txartelak eskura jartzen dira hautesmahaietan. Haiek jartzeko kabinak batzuk egoten dira normalean, izan ere, botoa sekretupekoa da. Baina, aurtengoan, Oñatiko Errekaldeko eta Olakuako mahaietan, botoak denen begi bistan zeuden: kanpoan.

Oñatin, EAE-ANV alderdiaren txartelak ere han aurki zitezkeen, gainontzekoen artean.

Aretxabaletan ere, han legez kanpo utzitako alderdiaren txartelak egon dira aukeran.

### > ERTZAINAK FALTAN Aurreko hauteskundeetan baino ertzain gutxiago

Urteroko kontua izan da, bozkatzera joan eta ertzaintzaren auto bat ikustea. Atzokoan, baina, gauzak aldatu egin ziren. Bailarako hainbat herritan –Bergaran eta Oñatin, esaterako–, ertzainen falta igarri zen. Haien betebeharra egiten, herrietako udaltzainak zeuden.

Gainera, Bergarako Labegarrietako hautesmahaia zaintzen, arkupean, ertzainen autoa egon bazegoen, eta baita bi ertzain ere barruan. Hori bai, Realaren partidua irratiz entzuten egon ziren biak.

### > APARKALEKU ARAZOAK Botoa ematera ere, autoz joan eta arazoak sortu dituzte

Eguraldi txarra aitzaki moduan, arrasatear batzuek bozkatzera autoz joatea erabaki zuten atzokoan. Aparkaleku arazoak direla eta, autoak espaloian eta gaizki aparkatuta egon ziren.

Hori horrela izanda, zirkulazio zuzena okertzearekin batera, oinezkoek ere ezin izan zuten euren bidea egin.

Arazo horiek Arrasateko Erguin auzoko Herri Eskolara euren botoa ematera autoz joandakoek sortu zituzten. Ea datoren hauteskundeetan autoa gutxiago erabiltzen dugun.

### > AGIRIAK Botoa emateko orduan, legez kanpoko jokaerak egon dira ibarrean

Botoa emateko orduan, nortasun agiria erakustea derrigorrezkoa da. Baina Oñatin, legez kanpoko bi adibide ikusi ahal izan ziren atzo: herritar batek nortasun agiriaren fotokopiarekin eman zuen bere botoa, eta beste batek, inolako agiririk gabe.

Gainera, EHNarekin botoa emateko arazoak egon dira hainbat herritan.

Hori bakarrik ez, botoa mahaiko presidentek sartu behar izaten du kutxan, eta leku askotan herritarrek berak sartu du txartela kutxan.

### > GATZAGARRAK ALPERTUTA Eguerdiko 12:30 jota, eta botuen %60 bakarrik emanda

Leintz Gatzagako hautesmahaiko kideak harrituta zeuden atzo. Eguerdiko 12:30 aldera, botoa emateko eskubidea dutenen %60 bakarrik zegoen mahaitik pasatuta, eta ez omen zen ohikoa. Normalean, ordu horretarako botoen gehiena emanda egoten da.

Botoa emateko eskubidea dutenak 206 biztanle dira, Espainiako Estatistika Institutuaren arabera.

Ibarrean biztanle gutxien duen herria izanik, Leintz Gatzagan, 20:20 alderako, zenbaketa eginda zuten.



Finantzaketa kuota personalizatua



Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Haitz-Iturri 4, Posta-kutxa 173  
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49  
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa  
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57  
20100 LEZO



## Egitaraua

## Astelehena, 28

09:00 Lasturko zezek Seminarioko zezek plazan.  
Gero, errektadore eskola ibiltaria, Bergarako errektadoreen eskutik.  
10:30 Plater tiroa Gorlan.  
11:00-15:00 Barrakak merkeago.  
12:30 Kontzertua Espoloian, Tarantella taldearekin.  
13:00 Koadrilen kalejira Incansables txarangarekin.  
14:30 Herri bazkaria, San Martin plazan, Xafre eta Zarra eta Incansables txarangak alaituta.  
17:00 Koadrilen arteko jokoak. Gero, Miss eta Mister Jator lehiaketa.  
17:30 Bergara Hiria pilota txapelketako finalak, Udal Pilotalekuan.  
19:00 Errekortadore eskola ibiltaria zezek-plazan.  
19:30 Kalejira, Xafre eta Zarra eta Incansables txarangakoein.  
22:00 Kontzertua Bideberrin, No Crew, Azkaiter Pelox, Emon eta Trikiario taldeekin.  
Ondoren, jolasak eta DJ Bull.  
23:00 Erromeria San Martin plazan, Ene Bada taldearekin.  
23:00 Camp dantzaldia Tarantellarekin, Espoloian.

## Martitzena, 29

09:00 Lasturko zezek Seminarioko zezek-plazan.  
Gero, errektadore eskola ibiltaria.  
11:00-14:00 Kartel erakusketa udaletxeko arkupeetan.  
11:30-13:30 Txango turistikoa herri trenarekin. Irteera Fraiskozuri plazatik.  
11:30-13:30 Haurrendako jolasparkea Ipintza II-ko patioan.  
12:30 Herri kirolen erakustaldia San Martin plazan: Mari Jose Sardon, Ernesto Ezepeleta Bihurri, Ana Berasategi eta Jose Inazio Flores.  
16:30-18:30 Txango turistikoa herri trenarekin.  
16:30-18:30 Haurrendako jolasparkea Ipintza II-ko patioan. Jolasparkea itxitakoan, Incansables txarangarekin kalejira, Simon Arrieta plazara.  
18:45 Zirika Zirkusen ikuskizuna Simon Arrieta plazan.  
19:00 Errekortadore eskola ibiltaria zezek-plazan.  
20:15-21:00 eta 22:30-00:00 Tximeleta taldearekin dantzaldia San Martin plazan.  
21:30-00:00 Euskal karaoke eta DJ festa San Martin plazan.  
00:00 Bitorianatxoren igoera eta agurra. Mendekoste jaien amaiera San Martin plazan, Incansables txarangaren laguntzarekin.  
00:30-01:00 Tximeleta taldearekin dantzaldia San Martin plazan.

JAIK &gt; MENDEKOSTEAK BERGARAN

# Euri zaparrada eta burrundara, oraindik jaietan da Bergara

Euriarengatik, ekitaldi batzuk bertan behera geratu dira, eta lekuz aldatu dituzte beste batzuk

Txosnetan eta kalean, eguraldi eskasari aurre eginez, jendea ibili da egunez eta gauez

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; BERGARA

Euri zaparradak. Hori zen astebururako eguraldi iragarpena, eta bete egin zen. Bergarako Mendekoste jaietan euria jaietako ekintzen parte izan da.

Egubakoitz iluntzean, zerura begira bergarar asko, udaletxeko balkoitik zein agertuko zain. Euri tantei lekukoa hartu zien zeruan Bitorianatxok, herritarrei jaien hasiera iragartzeko. Berak hartu du, jaietarako, Victoriano Gallastegiren lekua. Azken aldiz utzi dio alkateak tokia, jaien ostean, alkate berria izango baita Bergaran.

**GOIZERA ARTE, KANTU ETA DANTZA** Bitorianatxok emandako parrandarako baimenarekin, txosnak berehala ireki zituzten. Kalean, barraketan, tabernetan zein txosnetan, gauean ez zen jai eta umore girorik falta. Hori bai, Bitorianatxori euriak hartu zion lekua.

Euriak, ordea, ez zuen jendea kikildu. Plazan, Erdizka Lauetan taldearekin dantzan ibili ziren batzuk eta, txosnetan, Belceblues, Red House eta 12 Triburen doinuek ere erakarri zuten jendea.

Gaua luze joan zen eta zapatu goizean txosnetan oraindik jendea zebilen. Txosnetako karpak euritik babesteko neurri ona, beraz.

Gaupasa eginda batzuk eta propio jaikita besteak, zezek-plazan bigantxak ikustera joan ziren, baina, euriarengatik, bertan behera geratu zen ekitaldia. Zapatu arratsaldean eta domeka



DANTZARANGA Zpeiz Mukakikoez jende asko erakarri zuten txaranga musika modernoa eta euskal dantzeekin. JOSETXO ARANTZABAL

goizean bertaratutakoen eskariz, bigantxak zezek-plazatik kanpora atera eta doan eskaini zuten ikuskizuna. Domeka arratsaldeko errektadoreen saioa ere bertan behera geratu zen. Bergarako Zezenzaleen elkarteak esan digu Udalarekin hitz egingo dutela, eta saiatuko direla bertan behera geratutako saioak datoren aste bukaeran egiten.

**UMEEN EKINTZAK**

Beste batzuek, bigantxak ikustera joan beharrean, hauek marraztea nahiago izan zuten. Izan ere, zapatu goizean plastika lehiaketan jardun zuten 55 umeek jaiak hartu zituzten gaitzat eta barrakak zein zezekak ziren nagusi mihisean pinturaz, marrazkietan, zein plastilinazko lanetan.

Artista txikiei nagusiek hartu zieten erreleboa, beste era bateko artea eginez. Sukaldean abilak direla erakutsi zuten 12 elkartetako ordezkariak, bakailaoa gertatuz. Hermandad Pertxa-

ko Migel Lazkanok eta Jose Mari Etxeberriak gertatu zuten kazularik onena; bigarrenak izan ziren Artatsekoak; eta hirugarrenak, Gorlakoak. Hori guztia plazako arkupeetan, euriak ere protagonista izan nahi baitzuen.

Haurrek hartu zuten berriz ere tokia arratsaldean. Barraketarako pausoa eman ez zutenek zirko tailerra, bonba japoniarrak eta erraldoi eta buruhandiak izan zituzten. Euriak, umeek bezala, ez zuen atsedetik hartu eta, pixka bat bada ere, busti zen jendea.

**MUSIKA AUKERA ZABALA**

Zpeiz Mukaki taldekoek hasi zuten iluntze eta gau parteko musika eta dantza erronda. Iparaldeko mutil koadrila dantzan ibili zen herriko kale eta tabernetan. Rock doinuek eta euskal kantu ezagunak tartekatuz eta euskal dantzei ukitu berezia emanaz, jendearen harridura eta interesa piztu zuten.

Gauean, berriz ere euri tantak. Plazan, dantzaldia, eta txosnetan, kontzertua.


Inor gutxi pentsatuko zuen domekan eguzki izpiak ikusiko genituenik; baina goizeko aterruena aprobetxatuz, skatezaleak Labegarietan elkartu ziren. Musikazaleak, eta ez gutxi, Espoloian, bandaren kontzertua entzuteko.

Euria ez zen inorekin errukitu, eta berriro egin zuen agerraldia. Denak aterpe bila. Dantzariak taula gainean eta ikusleak arkupeetan, baita futbolin jokariak ere. Baina denak, ikuskizuna eskaintzeko gertu. Dantza solteko txapelketan, irabazle bergararrak: Amaia Bolinaga eta Haritz Arrillaga; bigarren, Nagore eta Iñigo Larrañaga azpeitiarrak; eta hirugarren, Idoia Besaga eta Iker Sanz Lezo eta Pasaiakoak.

Irabazle eta galtzaile, dudarik gabe, jaietako protagonista, euria. Ikusteko dago geratzen diren egunetako eguraldia; parrandarako gogorik behintzat ez da falta.

AZKARATE  
aroztegia

*Arotz lanetan  
behar duzun guztia*



- Ateak
- Leihoak
- Horma-armairuak
- Tarimak
- Parketak
- Sukaldeak





BITORIANATXO Euriari hartu zion lekukoa zeruan. J.A.



BIGANTXAK Zezen-plazatik kanpo atera zituzten Seminariora. J.A.



ZIRKOA Umeak barraketan zein zirko taileretan ibili ziren. J.A.



DANTZALDIAK Gauero, dantzarako musika plazan; irudian, Erdizka Lauetan. J.A.



TXOSNAK Musika talde asko -Red House, irudian-, 24 orduz zabalik egon dira eta. J.A.



DANTZA SOLTEA Euri zaparradak ez zituen atzera bota Euskadiko Txapelketako partaide gaztetxoak. J.A.



BAKAILAOA Elkarteetako sukaldari trebeek bakailaoa gertatu zuten arkupeetan. J.A.

**Unea aukeratzea,  
denbora aurrezte da.**

Francis Bacon



Minutu bat bera ere galdu gabe, gaur egungo sukalde berritzaileenak zure etxeko beharretara egokituta aurkitu nahi badituzu. Zatoz Bastida Sukaldeak-era.

Hitzordua eskatzeko aukera eskeintzen dizugu, denbora aurrez dezazun. 8:45etik - 20:30era arteko ordutegi jarraia benetan axola zaizkizun gauzetarako denbora izan dezazun.

Hitzorduetarako tfnoak.:  
azpeitia 943 150 510  
zarautz 943 894 999  
bergara 943 767 058  
[www.bastidasukaldeak.com](http://www.bastidasukaldeak.com)

**bastidasukaldeak**



&gt; OÑATI

**Korpusetako barrakak, maiatzaren 30etik**

Ekainaren 10ean ospatuko den Korpuseko prozesioaren inguruan datozen barrakak maiatzaren 30ean, eguazteen, etorriko dira Oñatira, eta ekainaren 11ra arte egongo dira. Urtero moduan, barrakak plazako aparkalekuan kokatuko dira.

Aipatu egunetan, barraketan ibiltzeko prezioa euro bat eta 20 zentimotan finkatu da. Hortaz, azkeneko hiru urteetan ez da barrakaren prezioa igo.

Halaber, bidaiaren prezioa merkatzen duen haurren eguna egongo da; aurten, ekainaren 2an izango da haurren eguna. Egun horretan, bidaiaren prezioa 60 zentimokoa izango da.

&gt; ARETXABALETA

**Santakurtzeko hornikuntzaren proiektua, lehiaketan**

Santakurtz kalean eta horren inguruan hornikuntza eta saneamendu plan berezia egiteko asmoa du Udalak.

Lan horiek egiteko proiektua idatzi behar dute aurretik, eta horretarako, laguntza tekniko kontratatzeko asmoa dute. Esleipena egiterakoan onartutako aurrekontua 70.000 eurokoa dela jakinarazi du Udalak.

Interesatuak udaletxera jo ahal izango dute eskaintzaren gaineko informazioa jasotzera. Horretarako, GAOn argitaratu denetik 26 egun izango dituzte. Epe bera izango dute eskaintzak aurkezteko. Horiek guztiak udaletxera bidali behar dituzte, Lan eta Zerbitzuen bulegora, hain zuzen ere.

&gt; ESKORIATZA

**'Mundua Bertan' eta jaietako esaldi lehiaketak**

Udalak jakinarazi berri du zein izan den *Mundua Bertan* lehiaketako irabazlea. Agurtzane Orbegozok ondo erantzun ditu lehiaketako lau galderak, eta berak eskuratu du saria, MP4 bat.

Bestalde, Euskara Sailak gogorarazteb du *Aireratu gure jaiak!* esaldi lehiaketan esku hartzeko epea joan den egubakoitzean zabaldu zutela. Taldean aurkeztu behar dira, goititzen batekin, jaietako lotutako esaldiak, eta pertsona bakoitzak talde bakoitzaren esku hartu ahal izango du. Ekainaren 3a da horretarako azkeneko eguna. Aproposena jaietan erabiliko dituzte, eta egileek sari dotoreak jasoko dituzte.

ELGETA



ZEZILIO TOTRIKAGUENA

**Erretiratuen txangoa Leintz Gatzagara**

Gustura ibili zen argazkiko erretiratu taldea Leintz bailara aldean. Arratsalde pasa egin zuten hilaren 21ean. 14:30ean, autobusez irten ziren Elgetatik, eta Gatzagako ermitan egin zuten lehenengo geldiunea. Ondotik, Gatz Museoa eta Jakion enpresa ere bisitatu zituzten. Bueltan, afari-merienda egin zuten Ozkarbi elkartearen.

Erretiratuek prest dute hurrengo txangoa. Baztan aldera joango dira ekainaren 7an. Izenematea Kutzako bulegoan egin behar da.

BERGARA &gt; 95 PERTSONA AURKEZTU DIRA ZOZKETARA

**Etxebizitzak egiteko hiru lokal zozketatu berri ditu Udalak**

Zozketatutako lokalak Elorregi auzoan eta Masterreka eta Zubiaurre kaleetan daude

JOKIN ETXEBARRIA &gt; BERGARA

Bergaran etxebizitza bihurtzeko hiru lokalen zozketa egin da asteon Bergarako Udaleko osoko bilkuren aretoan. Hasieran 98 pertsona aurkeztu ziren, baina, bi Bergaran erroldaturik ez daudelako, eta beste batek azken momentuan bere izena listatik

kendu zuelako, azkenean 95 pertsona izan ziren zozketan parte hartu zutenak, eta osoko bilkuren aretoa bete egin zuten.

Elorregi auzoko 32. zenbakian, eta Masterreka eta Zubiaurre kaleetako 26. eta 14. zenbakietan dauden lokalen zozketan hiru izan dira saritutako bergararrak:

Ibai Kareaga, Joana Heis eta Roberto Rodriguez izan dira. Kutxan zeuden gainontzeko izek atera zituzten gero, eta hauekin zerrenda bat osatu dute. Modu honetara, irabazleentzako bati tokatu zaion lokala ez bazaio gusatzen eta berorri uko egiten badio, listan laugarren postuan dagoenari eskainiko zaio lokala.

ORDENANTZA BETEZ

Lokal bat etxebizitza bihurtu eta saldu ahal izateko, Udalak kasu horietarako daukan ordenantza berezi bat bete beharra dago. Ordenantza horrekin lortu nahi dena da lokal horien salmentan egon daitekeen espekulazioa gaitzestea. Hori lortu ahal izateko hainbat baldintza ezarri dira. Adibidez, metro koadroa Babes Ofizialeko Etxebizitzek ezarritako duten prezio berean saltzea da, hau da, 700 eurotan.

ARRASATE &gt; IBAI ARTEREN IDATZIA, EROSKIREN HANDITZEA DELA-ETA

**Eroskiren handitzeak legea urra dezakeela salatu du Ibai Arte merkatarien elkarteak**

Idatzi bat aurkeztu dute Udalean, Hirigintza saileko buru Juan Antonio Urdangarini zuzenduta

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Arrasateko erdiguneko merkatarien elkarteak idatzia aurkeztu du Udal Hirigintza sailean. Arruena parkearen ondoan dagoen Eroski hipermerkatua handi-

tzeko asmoaren harira aurkeztu diote idatzia Hirigintzako teknikari buru Juan Antonio Urdangarini.

METRO KOADRO LARREGI

Laburbilduta, bi kontu salatu dituzte; batetik, Eroski hipermerkatuaren proiektuaren arabera, gutxi gorabehera 7.000 metro koadroan handituko dutela hura. Kontuan hartuta lehenagotik 11.000 metro koadro inguru dituela Eroskik, handitu ondoren, 18.200 izango lituzke. Hori horrela, Jaurlaritzaren 2004ko dekretuaren arabera, "hirigintza

infraekzioa gertatuko litzateke EAerako indarrean dagoen PTSaren arabera", hau da, aktibitate ekonomikoak eta ekipamendu komertzialak arautzen dituen plan bereziaren arabera. Izan ere, gobernuaren dekretuak zehaztu zuen, asko jota, 13.000 metro koadro eraiki ahal izango direla dena handiendako.

Horren harira, bestetik, salatzaren dute, baita ere, Arrasateko Udalak gune horretarako duen egitasmoaren arabera, 28.000 metro koadro eraiki ahal direla han; eta Ibai Artek dio hori ere lege-urratzea izan daitekeela.

&gt; ANTZUOLA

**Agintaldiko azken osoko bilkurak egin dituzte asteon**

Eguazteenan eta eguenean, osoko bilkurak egin zituen udalbatzarrak. Agintaldiko azkenak izan dira. Eguazteenan, hainbat gai landu zituzten. Aipagarrien artean, honakoak: Antzuolako Udal Etxegintzaren iazko dirukontuak onartu zituzten, batetik; eta Errukizko Amaren parrokoa eraberritzeko hainbat diru laguntza ematea ere onartu zuten. Azkenik, Herriko Banderaren erreplika txiki bana jaso zuten lau urteotan zinegotzi izan direnek.

Hurrengo osoko bilkura agintaldi berrian egingo dute, ekainaren 16an, hain zuzen ere. Egun horretan eratu dute udalbatzarrak.

&gt; ARAMAIO

**Uda aurretik egingo dute administrari izateko azterketa**

Udaletxerako administrari bat hartzeko oposizio lehiaketa deitu zuen Udalak. 50 lagun aurkeztu ziren, eta horietatik 48k bete dituzte lehiaketan parte hartzeko baldintzak. Halakoetan ohienez, onartutako lagunen izenak argitaratzearekin batera zehazten dute lehenengo azterketa noiz egingo duten; baita azterketak zuzentzeko epaimahaia zeinek osatuko duten ere.

Baina, hauteskudeen eraginez, erabaki dute azterketaren data eta epaimahaia izendapena uztailean zehaztuko dituztela, korporazio berria eratzen dutenean.

Horrela, oposizioetako lehen azterketa udako oporrak baino lehen egingo dute.

&gt; LEINTZ GATZAGA

**Etxebarri baserriko bidea egiteko lanak hastekotan daude**

Iazko abuztuan egin zuen lehen deialdia Udalak, Gatzagako Etxebarri baserriko bidea berritzeko, baina inor ez zen aurkeztu orduan. 2007ko Udal aurrekontuan bidearen konponketari diru gehiago ematea erabaki zuen udalbatzarrak, eta deialdia berriz egitea. Hala, joan zen astean egindako osoko bilkuran, Eibarko Asfaltos Mularri enpresari esleitu zizkioten lanak.

Etxebarri baserri orain ere badago zela joan, baina mendi bidea da, eta oso estua. Hortaz, jabeak zain daude noiz konponduko. Lau hilabete izango ditu Mularrik bidea egiteko, eta 97.471 euroko aurrekontua dute lanek.



## oharrak eta deialdiak

BERGARA

### > Bazkide berriak Sagarpel elkarterako

Egoitza berrirako nahi dituzte bazkide berriak. Informazioa: [larregi@eusklanet.net](mailto:larregi@eusklanet.net). 300 euro sartu behar dira maiatzaren 31 baino lehen Banco Guipuzcoanon (0042 0046 08 0110085601).

ELGETA

### > Baztanera irteera egingo dute erretiratuek

Ekainaren 7an, eguena, egingo dute irteera hori. Herriko plazan egin dute hitzordua, 08:30ean. Izena emateko Kutzako bulegora jo behar da.

DEBAGOIENA

### > Mundumirako elastiko solidarioak salgai

Mundumira jaialdiaren antolakuntzak eta Ternuak elastiko solidarioa jarri dute salgai. Dirua eskualdeko GKEendako izango da. 24 euro balio dute eta, saldutako bakoitzarengatik, 3 euro jasoko dira. Salgai daude honako lekuetan: Antzuolako Itziar liburudendan eta Aretxabaletako Jauregi okindegian, Durana kaleko kioskoan, Artano tabernan eta Asensio jantzi dendan.

DEBAGOIENA

### > Gurean enpresa berriak sortzeko auzolandegia antolatu du Saiolanek

Bergarako Elosu auzoan izango da. Inoiz enpresa propioa sortzeko ametsa izan dutenei dago

zuzenduta; parte hartze-ko baldintza da ikasketak bukatutako gaztea edo langabea izatea. Uztaillaren 16tik 29ra izango da auzolandegi berezi hori. Izena emateko epea zabalik dago, 943 71 20 72 zenbakian edo [alarrea@eps.mondragon.edu](mailto:alarrea@eps.mondragon.edu) postan helbidean.

ARRASATE

### > Arrasate Musikalen matrikula egiteko epea zabalik dago

Ekainaren 21era arte egingo da zabalik matrikula egiteko epea. Astelehenetik eguenera izango da hori, 17:00etatik 20:00etara. Hain zuzen, 4 urtetik gorakoendako instrumentu eta ballet eskolak daude. Baita helduendako talde bereziak ere.

BERGARA

### > 1968 kintoek afaria egingo dute

Ekainaren 9an egingo dute afaria. Izenematea, Zuhazti tabernan.

Izena emateko orduan, 10 euro aurreratu behar-ko dira.

BERGARA

### > Irteera Pol-Pol eta Gorla alpino taldeekin

Ekainaren 16an eta 17an egingo dute irteera, Sierra de Hajar-Alto Campora. Irteera ordua 18:00etan izango da, Fraiskozuritik. Izena emateko jo Pol-Pol taldearen bulegora.

DEBAGOIENA

### > Euskal Herriko Boulder Txapelketan izena emateko epea zabalik dago

Ekainaren 3an jokatuko da, Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuan. Mundumira jaialdiaren barruko ekitaldia da, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Espezialitate horretako eskalatzailerik onenak batuko ditu. Izena emateko edo informazio gehiagorako: [www.emf-fvm.com](http://www.emf-fvm.com) edo 902 18 14 71.

ARETXABALETA

### > Kirol elkarteko zuzendaritza batzordea osatzeko dei egin dute

Gaur egungo zuzendaritza batzordeak hiru urte bete ditu. Hori horrela, hilabeteko epea ireki dute batzordeko hautagai berriak aurkezteko. Hautagaitzak bidali behar dira Aretxabaletako 10. posta kutzara.

BERGARA

### > Gizarte zerbitzuen arloan diharduten taldeen dako dirulaguntzak

Udalak emango ditu laguntzak; 22.591 euro, hain justu. Baldintzak dira, besteak beste: legez eraturako taldea izatea eta Bergaran egitea jardueren egitaraua. Eskerak egin behar dira ekainaren 10a baino lehen, udaletxean.

DEBAGOIENA

### > Domeketan, meza Urbiako ermitan

Domu Santu Egunera arte, domekero meza egingo dute Urbiako ermitan. Aita Joseba Etxeberría Arantzazuko frantziskotarrak zuzenduko ditu elizkizunak.

ELGETA

### > Bi begirale behar dituzte uztaileko aisialdi zerbitzurako

Uztaillaren 2tik 20ra izango da aisialdi zerbitzua, eta bi begirale behar dituzte. Interesatuak udaletxean eman behar dute izena ekainaren 1aren aurretik.

## etxeko leihotik



Leire Kortabarria

ASTELEHENEN GOIENKARIAko erredaktore burua

## Egunon, Gogoeta eguna dugu gaur, astelehena

Erreflexio eguna hauteskunderen bezperari esaten zaio. Bada, nik ez dakit inork gogoeta sakonik egiten duen bozka zeini eman, ala eman edo ez; baina bozkak emozioarekin duelako zerikusia, buruarekin baino, uste dut ez dagoela gogoeta askoren beharrik hauteskunderen aurretik. Horren erakusgarri honakoa da: nik, behintzat, ez dut inoren programaren eta asmoen berririk jaso, baina unero entzun ditut politikariak aurkari egurra ematen, edo hautesleak aurkariak irabaziz gero gerta daitekeenarekin beldurtzen saiatzen. Instintuen, emozioen, filien eta fobien domeinua.

Ez. Gogoeta eguna hauteskunderen biharamunari esan beharko genioke. Orduan da eta norbere emozioak eta iritzia alde batera uzteko eta buruak kontrola hartzeko unea.

Une hori iritsi da. Baina, gehiago behar da. Gogoeta egunaren ondoren, Ekintza eguna inauguratu beharko genuke. Alderdi guztiek debekatuta izango lukete euren buruaren gainean berba egitera, eta behartuta egon beharko liriteke zerbait positiboa egitera. Denek herriaren alde lan egin gura dutenez, erakuts dezatela.

**"Gogoeta eguna, nire iritziz, hauteskunderen biharamuna izan behar litzateke"**

> **Aldaketarik** hauteskunde batzuetatik ez direla etorriko zioen hark. Egia da. Baina bozka askatasun adierazpena da. Horregatik besterik ez bada, betoz hauteskunde gehiago. Normalak. Baketsuak.

> **Australian**, bozkatzea derrigorrezkoa ei da! Ez da ideia ezin hobea? Ezkonberri bikote bat lo egin gabe joan da bozkatzera. Bejon deila! Hala egingo ote zuten Bergarako jaizaleek ere?

## debagoiendarrak kanpoan

Jone Ojanguren > Elgeta

## "Etxera noanerako, amonak otarrainxkak eta txuleta gertu izaten ditu"

ARANTZAZU EZKIBEL > ELGETA

Lehenengo aldiz, ikaslea zenean, joan zen Londresera, *au-pair* bezala lan egitera. Zazpi urte pasa dira ordutik. Orain, Londreseko Walthamstow auzoan bizi da, Chris senarrarekin

### Zela ikusten da Elgeta Londresetik?


Aurreko astean, Google Earth programarekin, Elgetaren irudi bat ikusi nuen; eta, industrialdea herriaren neurri bikoitzekoa dela ikusteak asko tristetu ninduen. Beharbada, industrialdean horrenbeste inbertsio egin beharrean, herria eta herritarren zerbitzuak hobetzen inbertitu beharko luke Udalak.

### Zergatik hartu zenuen Londresera joateko erabakia?

Donostian Turismoko ikasketak egiten ari nintzela, Londresera *au-pair* bezala etorri nintzen eta, ikasketak amaitzean, hiru hilabeterako etortzea erabaki nuen. Hotel baten lana aurkitu nuen, eta, hiru hilabete ondoren oso gustura nengoenez, bertan gelditu nintzen. Aurtengo urtarrian, Chrisekin, nire mutil-lagunarekin, ezkondu nintzen, eta, oraingo, hemen gelditzeko asmoa dugu.

### Londresen kolore eta toki gutzietako lagunak bizi dira. Euskaldunen artean, baduzue harremanik?

Hasieran, Donostian nirekin ikasitako beste euskaldun batzuk ere bazeuden, baina, orain, bakarra gelditzen da: Begoña, andoaindarra. Pare bat hilabete behin



GOIENKARIA

### Londresen ari da lanean

Ikasketak amaitu zituenean joan zen Londresera; Ambassadors Bloomsbury hotelean egiten du lan.

bakarrak elkartu arren, astean behin telefonoz hitz egiten dugu. Hori bai, elkartzen garenean beti ere mahai inguruan elkartzen gara.

Nire lagun gehienak italiarrak dira, baina mundu guztiko jendea ezagutu dut hemen nagoenetik.

### Zenbatean behin etortzen zara Elgetara?

Elgetara, urtean bi aldiz etortzen naiz; neguan behin, eta udan beste behin. Desiratzen nago oraingo udan etortzeko, Chrisekin etorriko naizen lehen aldia izango da-eta.

### Londresen fish and chips asko jaten dituzu?

Honelako hiri handi batean, denetarik jateko aukera dago.

Etxean, gehienbat, janari jamaikarra jaten dugu, baina lagunak etxera etortzen diren bakoitzean, tortilla egiteko eskatzen didate.

Elgetara etortzen naizenean, gure amonak beti edukitzen ditu otarrainxkak eta txuleta gertu etortzen naizenerako. Eta bueltan, Londresera etortzen naizenean, beti ekartzen dut Idiazabalgo gazta.

### Londres bisitatzera doan lagun bat nora eramaten duzu?

Euskal Herritik norbait bisitan etortzen den bakoitzean, gida turistikotan agertzen ez diren txokoetara eramatea gustatzen zait; Angel, adibidez, parranda egiteko toki ona da, eta, Saint Katherine's Dock Londreseko dorrearen ondoan dagoen txoko oso polita da.

## kale inkesta

## Ekainean zabalduko dute Agorrosingo bainuetxea. Erabiliko duzu?



**Xabier Zabaleta**  
Langilea  
Bergara

Ez. Ura gustuko dut, eta igerilekuan egiten dut lan, gainera, baina bainuetxeak beste era bateko jendearendako direla uste dut. Beharbada adinean aurrera joan ahala erabiliko dut, hezurretako mina hasten denean.



**Inma Etxeberria**  
Langilea  
Bergara

Bai. Gustuko ditut horrelako gauzak, eta joango naizela uste dut. Orain ez naiz Agorrosingo bazkidea, baina uste dut bono bereziak aterako dituztela bainuetxerako, eta hilabeterako txartela erabiliko dut.



**Miguel Tola**  
Langilea  
Bergara

Bai, erabiliko dut. Urte askotan izan naiz igerilekuetako bazkidea, eta orain ez naizen arren, bainuetxera joango naiz. Adinean ere bagoaz pixkanaka aurrera, eta lasaitzeko toki egokia dela uste dut.



**Nerea Marzo**  
Ikaslea  
Bergara

Ez dut uste erabiliko dudarik; ez dut ohiturarik horrelako lekuetara joateko. Igerilekura joaten naiz, eta lehen, kanpokoetara ere, udan. Hobeak ziren lehengoak. Orain, Arrasatera joan beharko dugu.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

BERGARA

## > Aparkatzeko tokirik ez Pazkoetan

Hainbat debagoiendar batzuen kexua izan da Pazko jaietan, Bergara aparkaleku gabe geratu dela. "Bideberrin, txosna; Santa Mariñan, saltzaileen karabanak; poligonoan, barrakak; Ibargarain, pilota dela-eta, dena hartuta; ikastolako patioan, zezen plaza... horrela ezin da autoa hartu!", dio batek. "Jaiak oso ondo daude, baina, dagoen aparkaleku eskasiarekin, zergatik ez ditu Udalak erraztasunak ematen eta beste leku batzuk egokitzen?", proposatzen du beste batek.

ARRASATE

## > Epelen, obrak ustekabeen

Epele inguruan obratan hasi ziren joan den astean. Hori dela eta, arrasatear batek hau diosku: "Badakigu obrak askotan ezinbestekoak direla eta ezin direla atzeratu; baina, sikieria, Epeleko biribilgunea bezalako leku bati eragiten diotenean, bazuten alde zurririk abisatzerik, ez? Hala, behintzat, zirkulazio handieneko orduetatik kanpo ibiltzen saiatuko ginateke, aukera izanez gero".

BERGARA

## > Jaietan, euriari aurea hartu

Bergarar batek "aurreikuspen handiagoo" eskatzen die jaien antolatzaileei: "Euri handiak zeuden iragarritan, baina azken unera arte ez zegoen jakiterik ze ekintza geratu zen bertan behera eta zein ez. Kasu batzuetan, ezin da ezer egin; baina, ahal denean, leku alternatiboak bilatu beharko lirake, alde zurririk".

## ustek uste

Jon Berezibar

## Garbi gera dadila amaitu direla

Huteskundeetan gauza benetan gogaikarria da lizunki xahututako paper kopurua. Zabarkeria horrek gailurra jotzen du ormak hautagaien irribarrekin (askorenak ezin makurragoak ohitura ezarengatik) estaltzen dituztenean. Bada, lehia honetan ere Arrasatek harro erakusteko moduko domina jar dezake. Inguruan ez dut herri zikinagorik ikusi. Alderdi guztiek (popularrak salbu, Lamarainen aurpegia ez dut larregi begiztatu) baitaratu dute herritarrak higuintzeko asmo hori, bejon deiela. Ez dakit ardura Udalarena den edo leku ofizial gutxiegi ipini dituzten edo ez zait axola zerk, baina amorratzeko modukoa bada.

Ea zenbat denbora behar duten kartelak kentzeko.

## zorroztailea



Jabier Arantzeta

## Analfabetoak omen

"Oso larria da B eta D eredu-tan milaka ikasle egotea ikasgai nagusietako kontzeptuak eta azalpenak ulertzeko gai ez direnak, ulertu ezak ezinezko egiten duelako ikaste egokia", adierazi zuen Iñaki Oyarzabalek, PPko Hezkuntza gaietarako bozeramaileak."

El Diario Vasco > 2007-05-26



Eskestzekoa da Oyarzabal jauna kezkatuta egotea D eredu-ikasleen artean, hauek euskara ulertzen ez dutelako, analfabetoak sortu daitezkeelako, normalean euskara erabiltzen dugunon artean badakigu, azterketak azterketa, gure ikasleek gehien batean ondo ulertzen dutela eskolan esaten zaiena. Dena dela, uste dut horren aurretiko kezkarik badagoela gure ikasleen euskara maila dela eta. Esaterako, Oyarzabal jaunak aipatutako datu horien arabera, A ereduaren ehuneko laurogeita hemezortzi analfabeto hutsa da komunitate autonomoko hizkuntza ofizial batean.

Baina, gure komunitate autonomo honetan, hizkuntza ofizial-tako bat ez jakitea ez da analfabeto izatea jende askorentzat. Denek onartzen dute aberastasun puntu oso dotorea ematen dela ezagutzeak eta, noski, inor ez dago euskararen aurka; baina beti ere eranskin dotore bat besterik ez den neurrian.

Bada, jakin beza Oyarzabal jaunak herri honetan euskara ez jakiteak analfabeto bihurtzen duela bat, eta elkarrekiko komunikazioa larriki oztopatzen duela herritarren artean, herritar horietako batzuk behartuta daudelako euren ez den hizkuntza erabiltzera komunikatu ahal izateko.

Gero esango dute goian aipatutako horiek esatea euskara politizatzea dela, eta euren ez dute horrelakorik nahi. Baina *El Diario Vasco*-n edo *El Correo*-n euskararen inguruan agertzen diren berriak guztiek, guztiek ez esateagatik, horrelakoxe ukitua daukate: irakasle gizajoez dituzten arazoak hizkuntza eskakizunaren azterketa gainditzeko, edo mediku edo erizain ugari, batere kulpa barik, euskara ikastera behartuta dagoela, edo eskoletan euskara ikasten galtzen den denbora beste zerbaitetan erabiliz gero izugarri ikasle onak izango genituzkeela, edo zenbat diru gastatzen den han edo hemen euskara dela eta.

Guk garbi daukagu, eta politizatu barik: euskara ez dakiena analfabeto da, gutxienez, eta jakin beharrik ikusten ez duena zeharo politizatutako euskararen kontrako pertsona da.

**"Herri honetan euskara ez jakiteak analfabeto bihurtzen du bat"**

**"Jakin beharrik ikusten ez duena politizatutako pertsona da"**

## Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarría Erredakzioa Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Edurne Burgaña Oinarritzko diseinua Goio Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

### EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



## Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundia



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



# Kirola



> **FUTBOLA**  
Preferente mailako azkeneko jardunaldia jokatu dute > 16



> **ESKUBALOIA**  
Ford Mugarrik Gipuzkoako kopa txapelketa irabazi du > 18



> **ARETO FUTBOLA**  
UDAk laugarren amaitu du igoera fasea > 21



> **PILOTA**  
Arrasatek abantaila hartu du Azkoitiaren aurka > 21

BIKE TRIALA > MUNDUKO TXAPELDUNA, BERGARAKO JAIETAN

## Bergararrak, aho zabalik munduko txapeldunari begira

### MUNDUKO MARKA

Bergarako plazan, munduko errekorra hautsi zuen Rosek: 1,85 metroko jauzia

### PARTE-HARTZEA

Begararrek parte-hartze zuzena izan zuten Bike Trial ikuskizunean

### ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Benito Ros, 2004 eta 2003 urteetan elite mailako munduko txapelduna izandakoa, Bergarako plazan izan zen atzo. Bike Triala egiten du Benito Ros nafarrak, eta, atzokoan, argi geratu zen zergatik den munduko txapelduna modalitate honetan.

Pilotu nafarrak berak ezarritako munduko errekorra hautsi zuen; Bergarako plazan, 1,85 metrotako jauzia egin zuen, orain lau urte egindako munduko errekorra 18 zentimetrotan hobetuz.

Plaza jendez lepo bete zen; guztiak aho zabalik zeuden pilotu nafarraren trebetasunei begira. Atzoko ikuskizunak hiru zati izan zituen; lehenengoan, Benito Rosek oztopo ezberdinak gainditu zituen, eta, esan bezala, munduko errekorra hautsi zuen. Gero, motorraren aritu zen Bergarako plazan alderik alde, guztien begiradapean; eta, azkenik, berriro ere bizikleta hartu eta, bergararren laguntzarekin, jendea ila-

ran jarri eta guztien gainetik saltoka aritu zen; argitu behar da inork ez zuela minik hartu.

### 1,85 METROKO JAUZIA

Begarako plazan bildutako jendea animatzeko, Benito Ros salto txikiekin hasi zen. Eskulekuan bultzada hartu, eta gorputzaren indarrarekin 1,52 metroko jauzia egin zuen Rosek. Poliki-poliki, oztopoak gehitu zituen munduko txapeldunak, eta, azkenean, 1,85eko jauzia egin zuen, bere munduko errekorra 18 zentimetrotan gehituz. Gero, kamioi gainera egin zuen jauzi; arrapala baten laguntzarekin, kamioi gainean jarritako oztopoak gainditu zituen. 2,72 metrotako jauziarekin hasi zen eta, azkenean, 3,33 metroko jauzia egin zuen. Izugarria izan zen.

### 32 LAGUN LURREAN

Bizikletarekin aritu eta gero, Rosek motorra hartu zuen. Bike Trialeko ohiko motorra erabili zuen, baina, atzealdean, burdin zati bat jarrita; hala, atzekoz aurrera jartzean, hankak non ipinia bazuen nafarrak. Benito Ros ez zen oso gustura geratu motorraren egindako ikuskizunarekin; izan ere, Bergarako plaza ez da berak nahiko lukeen bezain luze eta zabala. Hala ere, jauzi ikusgarriak egin zituen.

Azkenik, berriro ere bizikleta hartu eta jendearen gainetik egin zituen jauziak Rosek. Azkena izan zen ikusgarriena; 32 lagun etzanarazi zituen nafarrak, hiruko jauzia egiteko. Guztia, baina, adar-jotzea izan zen. Azkenean, plazan bildutakoen txalo artean agurtu zen Benito Ros.



OZTOPOAK Benito Ros, Bergarako plazan, oztopoak gainditzen.

JOSETXO ARANTZABAL

MOTOKROSA, EKAINAREN 16AN

### Motokros txapelketa, bertan behera

Zapatuan bota zuen euriaren ondorioz, Bergara Hiria motokros txapelketa bertan behera geratu zen. 11:30ean hartu zuten erabakia antolatzaileek; zirkuituaren egoera ikusirik, txapelketa ez jokatzearabaki zuten parte-hartzaileek eta antolatzaileek. Hala, zapatuan jokatu beharreko lasterketa ekainaren 16ra atzeratzea erabaki dute.

Begarako motorzale koadrilak Arrasateko Motorzale Taldekoen laguntzarekin antolatu duen bigarren Bergara Hiria txapelketa da. Iaz, lehenengoz antolatu zuten, eta arrakasta izugarria izan zen. Zapatuan parte hartzekotan ziren 100 pilotuek ekainean izango dute hitzordua.





TORRES Jon Torres eta Kepa Azkue, lehenengoaren gola ospatzen; penalti bidez egin zuen (1-0).

JOSETXO ARANTZABAL

Mondrak Zarautz liderraren aurka 2-1 galdu zuen; UDAk, etxean, Trintxerperen aurka 1-0 irabazi zuen, eta Aloñak, etxean ere, Idiazabalen aurka 1-2 galdu zuen

**PREFERENTEA** > UDAK BAKARRIK IRABAZI DU

# Preferente mailako hiru taldeek agur esan diote aurtengo denboraldiari

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA  
UDAK, Mondrak eta Aloña Mendik agur esan diote aurtengo denboraldiari. Aste bukaeran, ligako azkeneko norgehiagoka jokatu zuten ibarreko preferente mailako hiru taldeek. Hala, Mondrak eta Aloña Mendik galdu egin dute azkeneko lehia. Aretxabaletako UDA taldeak, ordea, garaipen batekin agurtu du denboraldia, etxekoan aurrean 1-0 irabazita.

**UDA, LAUGARREN SAILKAPENEAN**  
Azkenean, UDA izan da, gure taldeen artean, sailkapenean goren geratu den taldea. Atzoko lehia 1-0 irabazita, 8. postutik 4.era egin dute jauzia aretxabaletarrek. 53 punturekin amaitu du UDAk denboraldia.

Ibarran jokaturako lehia ez zen ona izan. Lehenengo zatian, penalti bidez egin zuen gola Torresek. Hala, errentari eutsi besterik

ez zuten egin aretxabaletarrek. Gainera, atzo, Jon Torres, Gaizka Eriz, Igor Arenaza eta Kepa Azkuen agurra izan zen.

**MONDRAK ETA ALOÑAK, GALDU**  
Denboraldi guztian aurreko postuetan ibili eta gero, Mondrak sailkapeneko 7. postuan amaitu du liga, 50 punturekin. Zapatuan, Zarautz liderraren zelaian jokatu zuten Igor Gordobilen mutilek eta

2-1 galdu zuten. Mondraren gola Jon Murua Arrasateko aurrelariak egin zuen.

Aloñak ere galdu egin zuen. Atzo, etxeko zaleen aurrean, 1-2 galdu zuten, Idiazabalen aurka. Oñatiarren gola Iban Astolak egin zuen, 15. minutuan. Aloñak 11. postuan amaitu du, 40 punturekin. Gainera, hiru denboraldiren ostean, Aitor Orueta entrenatzaile oñatiarrak utzi egin du futbola.

**EMAKUMEZKOAK** > IGOERA FASEA

## Igoera lortzeko atarian geratu da Bergarako BTLS

BTLS  
**0-0**  
HERNANI

**A.E.** > BERGARA  
Igoera jokatzekeo finaletik kanpo geratu da Bergarako BTLS nesken taldea. Denboraldi bikaina egin ondoren, bigarren postuarekin konformatu behar izan dira Bergarako neskek.

Egubakoitzean, igoera faseko azkeneko lehia jokatu zuten Ipinztan, Hernaniren aurka; jokoan

ezer ez egon arren, etxekoak garaipenaren bila irten ziren. Partiduaren erritmoa hartzea kosta zitzaizen arren, minutuak pasa ahala, joko ona egin zuen etxeko taldeak.

**PENALTIA AURKA**  
Hernanik, baina, aukera paregabe izan zuen garaipena lortzeko; hala, penaltia alde zutela, aukera alperrik galdu eta zutoinera bota zuten baloia Hernanikoek. Azkenean, husnako berdinakarekin amaitu zen lehia. Bergarako neskek Zarautz liderrarengatik hiru puntura amaitu dute igoera fasea.



BTLS Bergarako jokalaria baloia duela.

JOSETXO ARANTZABAL

## emaitzak eta sailkapenak

### PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Zarautz	71	34
2. Hernani	61	34
3. Zestoa	59	34
4. UDA	53	34
5. Ordizia	53	34
6. Berio	52	34
7. Mondra	50	33
8. Trintxerpe	50	33
9. Anaitasuna	46	33
10. Touring	41	33
11. Aloña Mendi	40	33
12. Idiazabal	39	33
13. Aurrera	37	33
14. Hondarribia	36	33
15. Pasaia	33	33
16. Mutriku	32	33
17. Martutene	31	33
18. Urola	27	34

### Emaitzak

UDA-Trintxerpe	1-0
Zarautz-Mondra	2-1
Aloña Mendi-Idiazabal	1-2
Zestoa-Berio	1-0
Aurrera-Anaitasuna	0-0
Ordizia-Touring	2-1
Hondarribi-Mutriku	0-2
Hernani-Urola	2-3
Pasaia-Martutene	4-1

### BESTELAKOAK

#### BIGARRIN ERREGIONALA, IGOERA

BTLS-Trintxerpe	2-2
Mariño-Antzuola	1-0
Intxurre-Elgeta	5-2

#### BIGARRIN ERREGIONALA, KOPA

Mondra-Urki	4-0
Eibartarrak-UDA	5-1

#### EMAKUMEZKOAK, IGOERA

BTLS-Hernani	0-0
Mondra-Luberri	1-1

#### EMAKUMEZKOAK, KOPA

Aloña Mendi-Salvatierra	0-0
Elgoibar-UDA	2-5

#### OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Vasconia-Aloña Mendi	0-1
Mondra-UDA	0-5

#### OHOREZKO GAZTEAK, KOPA ETA JAITSIERA

Bergara-Euskalduna	7-0
--------------------	-----

#### OHOREZKO KADETEAK, IGOERA FASEA

UDA Arizmendi-Ordizia	4-0
Real Sociedad-Bergara	5-3

#### OHOREZKO KADETEAK, KOPA ETA JAITSIERA

Antiguoko-Arrasate	3-1
Aloña Mendi-Hernani	3-1

#### ALEBINAK

Bergara-Arrasate	0-5
Aloña Mendi-Beasain	6-2



Gorka Zurututza > Mugarri Alkesako entrenatzailea

# "Uteboren aurka, hasierako minututik, markagailua alde izatea komeni zaigu"

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Domekan jokatu du Mugarri Alkesak denboraldiko partidurik garrantzitsuenak: EBA ligako jokatzeko txartela ematen duena. Taldearen azken orduko berriak jakiteko, Gorka Zurututza taldeko entrenatzailearekin hitz egin dugu.

**Denboraldiko partidurik garrantzitsuenaren aurrean, nola dago taldea?**

Orokorrean, nahiko ondo. Hala ere, joan den astelehenean, Iñigo Biainek orkatila bihurritu zuen. Hortaz, azken unera arte, ez dakigu jokatzeko moduan egongo den.

**Zer egin duzue igoera fasea bukatu zenetik? Modu berezian prestatu duzue domekako partidua?**

Entrenamenduekin jarraitu dugu, eta, tartean, lagunarteko partidurik jokatu ditugu: Consmetal taldearen aurka jokatu genuen, adibidez. Bestalde, oraingo astean, hiru entrenamendu egingo ditugu, norgehiagoka jokatu aurretik.

**Domekan, Zaragozako Uteboren aurka jokatu duzue. Nolako taldea da?**

Jokalari gazteak eta atletikoak ditu. Halaber, Esloveniako bi jokalarik ditu; bat 2,15 metro garai da, eta bestea, 1,90 metro. Aipagarria da, baita ere, Utebo taldea Cai Zaragoza taldearen filiala dela. Hortaz, talde indartsua dela esan behar da.

**EBA ligara igotzeko lehia partidu bakarrean erabakitzen da. Horrelakoetan, norgehiagoka irabazteko gakoa non egoten da?**

Pena da guztia 40 minutuetan erabakitzea. Horregatik, gakoa partiduen hasieran



Argazkian, Gorka Zurututza, semearekin.

ARTXIBOA

egongo dela uste dut. Hasierako jaurtiketetan ondo asmatzen badugu, eta errenta lortzen badugu, errezagoa izango da lehia irabaztea. Bestalde, mar-

kagailuan atzetik jarriz gero, zailagoa egingo zaigu gure helburua lortzea. Edozelan ere, zaila izango da etxetik kanpo irabaztea; igoera fasea bigarren

**"Domekako partiduen aurretik, hiru entrenamendu egingo ditugu"**

**"Pena da EBA ligara igotzea edo ez 40 minututan erabakitzea"**

**"Hasierako minutuak erabakigarriak izango dira; errenta hartzea komeniko zaigu"**

**"EBA liga jokatzeko, aurrekontu handia behar da, eta laguntza beharko dugu aurre egiteko"**

tokian amaitzearen ondorioz, partidua Zaragozan jokatu behar dugu-eta.

Halaber, partidua berdindua bada, irabazteko aukerak izango ditugu, horrelako egoeretan esperientzia duen taldea baikara.

**EBA ligan jokatzeko txartela lortuz gero, iazko arantza ateratzeko bidea izango duzue.**

Taldea oso gogotsu dago. Azken bi denboralditan erakutsi dugu lehenengo maila txiki geratu zaigula. Talde honek EBA ligan jokatzeko maila du. Jakina, igoera lortzen badugu, jokalarik berriak ekarri beharko genituzke.

Iaz eskutan izan genuen, eta aurten, igoera lortzea espero dugu. Bada, EBARA igotzen bagara, laguntza beharko dugu.

**Zer motatako laguntza behar du taldeak?**

Dirua da behar duguna. EBA ligan jokatzeko, 25.000 euroko aurrekontua beharko dugu. Hortaz, erakundeen eta enpresen aportazioak ezinbestekoak izango dira.

**Igoera lortu ezean, taldeak aldaketa asko izango lituzke?**

Nik uste dut beharrezkoa dela. Datorren urtean, berriro lehengo mailan jokatu bagenu, baja asko egongo lirarteke taldean. Ziklo baten amaiera izango litzateke.

**Edozelan ere, Arrasateko harrobia oso ona da.**

Ointxe Saskibalo Elkartean bikaina egiten ari da harrobiko taldeekin. Hala, esan daiteke gure taldeak etorkizuneko jokalariek izango dituela. Aurten, gazte mailako taldeak Euskal Ligan egin duena ikusi besterik ez dago.

KADETE MAILA

## Kadeteek txapelketak amaitu dituzte

Bergara, Aloña eta Alkesa taldeak lehiatu dira

M.B. > BERGARA

Federazio txapelketarekin amaitu dute Bergara, Aloña eta Construcciones Alkesa taldeek kadete mailako denboraldia; joan den aste bukaeran jokatu zituzten urteko azken norgehiagokak.

**BERGARA ETA ALOÑA**

Bergara eka Aloña, federazio txapelketan, multzo berean lehiatu dira.

Oñatiarrek galdu egin zuten denboraldiko azken lehia. Krafft taldearen kantuan, 59-38 galdu zuten. Halaber, multzo berean, Bergarak, etxean, Easo taldea menderatu zuen; 55-52 irabazi zuen donostiarren aurka.

Hala, bergararrek bederatzita punturekin amaitu dute federazio txapelketa, jokatuako partiduetatik hiru irabazi ondoren. Aloñak, aldiz, txapelketako sei partiduetatik galdu ditu, eta sailkapeneko azken tokian amaitu du.

**CONSTRUCCIONES ALKESA**

Arrasateko taldeak ere aste bukaeran amaitu du denboraldia. Puntu bakar bategatik, 61-62, irabazi zuen La Salle taldearen aurka. Hortaz, ozta-ozta irabazi zuen azken lehia.

Construcciones Alkesa taldeak federazio txapelketa lehenengo tokian amaitu du. Arrasatearrek jokatuak bi partiduetatik irabazi dituzte.

www.eps.mondragon.edu

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK  
ARRASATEKO GOI ESKOLA POLITEKNIKOAN

IZENEMATEA	TITULUAK
<p>Datak: <b>Ekainaren 1etik 7ra</b></p> <p>Ordutegia: <b>8:30etatik 12:00etara eta 14:30etatik 17:30etara</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak.</li> <li>• Telekomunikabide eta Informatika Sistemak.</li> <li>• Informatika Sistemen Administrazioa.</li> <li>• Informatika Aplikazioen Garapena.</li> <li>• Proiektu Mekanikoen Garapena.</li> <li>• Mekanizazio Bidezko Produkzioa.</li> <li>• Industri Ekipoaren Mantenimendua.</li> </ul>





TXAPELDUNAK Argazkian, Ford Mugarriko jokalariek eta entrenatzaileak, txapelkunaren saria jaso ondoren.

JUAN LUIS ISASMENDI

EGIA

24-31

FORD MUGARRI

Egia > Sistiaga, Martin (6), Galparsoro (2), Zubizarreta (3), Urola (1), Artetxe, Arrigot, Etxeberria, Murua (3), Lopez, Arzak (3), Olano (1), Gorbea eta Antonio (2).

Ford Mugarri > Igor, Asier, Nestor (7), Jonan (1), Aitor, Eneko, Peio (1), Arkaitz (4), Iker (5), Aitor, Kepa (4), Oier, Iker eta Andoni (9).

MIREIA BIKUÑA &gt; BERGARA

Denboraldia bikain bukatu du Arrasateko eskubaloitzaileak. Euskadiko txapelketan mailari eutsi ondoren, kopa txapelketa irabazi dute arrasatearrek.

Egia taldearen aurka irabazi zuen Ford Mugarri, atzo,

FINALA &gt; EGIAREN AURKA JOKATU DUTE ARRASATEARREK

## Ford Mugarri kopa txapelketa irabazi du

Gipuzkoako kopa txapelketa. Tolosan jokatu zen norgehiagokan, arrasatearrek 24-31 irabazi zuten.

ATEZAINAK, BIKAIN

Ford Mugarriko arduradunek ondo ezagutzen dute Egia taldea. Hortaz, estrategia erabili zuten partidua irabazteko. Defentsan, Ford Mugarriko jokalariek batek aurreratuta jokatu zuten. Hortaz, Egiako jokalariei, kosta egin zitzaien jaurtiketa onak topatzea. Hala, Ford Mugarri, hasie-

ratik agindu zuen markagailuan. Defentsan egindako lanarekin batera, Ford Mugarriko bi atezainek, Igorrek eta Asierrek, egindako lana azpimarratu behar da. Igor Egañak geldiketa erabakigarriak egin zituen norgehiagokaren azkeneko minutuetan: markagailuak 21-25 erakusten zuela, hiru geldiketa egin zituen jarraian.

Hala, arrasatearrek, finala haien alde jartzeko, 0-3ko partziala egin zuten, eta zazpi goleko errenta zabaldu zuten.

Gipuzkoako kopa txapelketa finalarekin, Ford Mugarriren deboraldia bukatu egin da. Orain, irailean hasiko den txapelketa berriarekin pentsatzen hasi beharko dute.

"Urte ona izan da guretzat. Gure helburuak bete ditugu. Orain, datorren denboraldia prestatzen hasiko gara. Aldaketa asko izango ditu taldeak, jokalariek beterranoek taldea utzi dute eta", azaldu zigun, partidua amaieran, Beñardo Balerdik, taldeko entrenatzaileak.

GAZTE MAILA &gt; KOPAKO AZKEN JARDUNALDIA

## Verkol Aloñako neskek denboraldia amaitu dute

VERKOL ALOÑA

25-29

ZARAUTZ

A.E. &gt; OÑATI

Aloña Mendiko gazte mailako taldeak, kopako azkeneko lehia, ezin izan zuten garaipena lortu. Zubikoan jokatu zen norgehiagokan, egubakoitz arratsaldean.

Sailkapenari begira, guztia erabakita zegoen; hala, bai oñatiarrak eta bai zarautzarrak lasai atera ziren kantzara. Tentsio gabeko partidua izan zen, defentsan lasai aritu ziren eta, hala, gol asko ikusi ziren egubakoitzean Zubikoan. Guztira, 25 gol egin zituzten etxeok, eta lau gehiago Zarauz-

ko neskek: 29. Galdu egin zuten, beraz, denboraldiko azkeneko lehia Verkol Aloñak.

SENIORRAK ERE, GALDU

Aloña Mendiko senior mailako taldeak ere Zarautzen aurka jokatu zuten kopako azkeneko lehia. Eta horiek ere galdu egin zuten: 32-24. Hala, oñatiarrek hirugarren postuan amaitu dute kopa txapelketa: sei puntu lortu dituzte, hiru norgehiagokan irabazi eta bi galdu ondoren.

Verkol Aloñak gazte mailako neskekin jokatu du kopa txapelketa. Izan ere, datorren urteari begira, taldea osatzen ari dira oñatiarrak; Euskadiko goren mailatik Euskadiko lehenengo mailara igo dira oñatiarrak. Aurten, denboraldi bikaina egin dute Verkol Aloñako neskek.



JAURTIKETA Irudian, Aloñaren eraso.

JOSETXO ARANTZABAL

IGOERA FASEA

## Bergarak bere esku du igoera lortzea

USURBIL

27-30

BERGARA

A.E. &gt; BERGARA

Igoera fasea amaitzeko partidua bakarrik falta denean, Bergarak igoera faseko lehenengo postua eskuratu du. Zapatuan, Usurbilen aurka 27-30 irabazi zuten Muniategiren mutilek. Gainera, orain arte lider izan den Urdulizek galdu egin zuen Urdanetaren aurka. Beraz, aste buruko emaitzak ezin hobekak izan dira talde bergararentzat.

Orain, Bergara liderra da 10 punturekin, baina atzetik ditu Urdaneta eta Urduliz, puntu bakarrera, hau da, 9 punturekin. Beraz, azkeneko partiduan erabakiko da zein taldek jokatu duen Euskadiko txapelketa datorren urtean.

LEHIA GOGORRA

Zapatuan Usurbilen jokatu tako lehia gogorra izan zen. "Tentsio handiko norgehiagoka izan da; nahiko parekatuta ibili ondoren, azken minutuetan erabaki da guztia", azaldu zuen partidua amaieran Josetxo Muniategi entrenatzaileak. Taldearen jokoa ere ez zen erabat ona izan. Hala ere, bergararra gustura geratu zen jokalarien jarrerarekin.

Hala, Bergarako eskubaloitzaileek domekan, 12:15ean, Labegarietan, izango dute hitzordua. Alipendiren aurka jokatu du igoera Bergarako taldeak.

emaitzak

MAILAZ MAILA

GIPIZKOAKO KOPA, LEHENENGO ETA

BIGARREN MAILA NAZIONALA

Egia Servi Chap-Ford Mugarri 24-31

GIPIZKOAKO KOPA, NESKAK

Zarautz-Verkol Aloña 32-24

EUSKADIKO TXAPELKETARAKO

IGOERA FASEA

Usurbil-Bergara 27-30

GAZTE NESKAK, KOPA

Verkol Aloña b-Zarautz. 25-29





MIKROENPRESAK  
AUTONOMOAK  
SALTOKIAK

## Kutxan, dendetan, tailerretan, kontsultetan... lan egiten dugu.



Gure ardura baita zure finantza-administrazio eta kudeaketa hobetzea, zure negozioa errentagarriago egitea, finkatzea, hobetze-asmoetan laguntzea...

Horretarakoxe daukagu zuretzat **gure MAC Zerbitzua**, zure negozioa bultzatzeko zerbitzu aparta, behar duzun arreta hurbil eta pertsonalizatua emateko prest beti ere.

■ ■ ■ **Zain gauzkazu** ■ ■ ■

zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 **kutxa**



ARRASATE

# Eskola kirolen azken festa euripean egin zuten herenegun, zapatua

**GOIZ GRIS ETA EURITSUA** Horrela iratzartu zen zapatuko eguna, eta ahal bezala egin zuten umeez Eskola Kirolen azken zapatua

**JOLASAK, SARI BANAKETA ETA ZOZKETA** Goizerako hainbat ekintza zeuden aurreikusita, baina aldaketak egon ziren azken momentuan

**DATORREN URTERA ARTE** Pena pixka bateaz esan zioten umeez agur Eskola Kirolei, baina datorren urtean bueltatzeko asmoz

KOLDO CARRILLO &gt; ARRASATE

Joan zen zapatuan, Eskola kirolen azken festa ospatu zuten ume eta monitoreek. Zorte txarra izan zuten herenegun, eta goiza euripean eman zuten. Hainbat ekintza aurretik antolatuta zeuden, altxorraren bila jolasa, bizikleta martxa familiarra edo sari banaketa eta zozketa, adibidez.

Goizeko 10etan bildu ziren Arrasateko plazan ume, monitore eta gurasoak, baina haurrek altxorraren bila egin behar zuten bidea bertan behera gelditu zen. Azkenean, Gazteluondora ziren ginen denok, eta, bertan, jolas batzuk antolatu zituzten monitoreek haurrentzako. Hauek, modu batean ala bestean, ondo pasatu zuten goiza, lagunartean eta batetik bestera korrikari eta barrez.

**AGUR ESATEKO PENAZ**

Alde batetik, pena ematen zien umeei zapatu goizeko agurrak, baina alai ere bazeuden, eta beti bezain beste ala gehiago disfrutatu zuten lagunekin jolasean eta monitoreekin, hurrengo urtera arte ikusiko ez dituztenak.

Ikasturte honetan, agurra emateko egunean kale ez egitearren, edo azken zapatua izateak ondo pasatzera bultzatuta, kontua da Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako 35 bat ume izan zirela bertan.

Eskola kirolen hurrengo ikasturteari begira, zalantzarik gabe errepikatuko dute aurtengo esperientzia askok. Gustura eta hurrengo denboraldia heltzeko irrikaz amaitu zuten goiza.



ESKOLA KIROLN AZKEN FESTA Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako neska-mutikoak Gazteluondon bildu ziren azkenean.

KOLDO CARRILLO

## ZER MODUZ JOAN DA ESKOLA KIROLN DENBORALDIA?



Silvia eta Kimi

"Orokorrean, urte guztian oso gustura ibili gara", baieztatu zuen lagun bikote honek. "Jolasak izan dira onena", zioten, zehazki bat aukeratzen ausartu barik. "Gaurko eguneko eguraldia pena bat izan da", ere gaineratu zuten. Egun polita nahi zuten, baina ezin.



Ander, Kevin eta Danel

"Gustura ibili gara urte osoan", baina noizean behin liskar txikirik izan dutela zioten. Bestela, ekintza guztien artean "futbola izan dugu gustukoena". Danel atezaina izaten da. Kevinek, bere aldetik, saskibaloia ere gogoko du, "baina ez dugu horrenbeste aukera izaten saskibaloian aritzeko", baina gogoz hartzen du horretarako edozein aukera.



Andoni eta Asier

Andoni eta Asier ere oso pozik ibili dira Eskola Kiroletan urte osoan zehar. "Klaseko lagunak inguratuta ederki pasatzen dugu", zioten. "Armiarma jolasa eta harrapaketa bereziki gogoko ditugu", esaten zuten biek. Datorren urtea heltzeko gogoia dute, berriro etortzeko.



Peru eta Unai

Biek ere futbola aukeratu dute urte guztiko ekintzarik gogokoena bezala. Hala ere, bestelako kirolak aipatzean, Peruk korrika egitea gustatzen zaiola dio, eta Unairi, saskibaloia. "Eguraldiarekin ere zorte txarra izan dugu, kasualitatea izango da, baina beti euria egiten digu".



Itsaso

"Armiarma jokoa eta bonba dira nire gustukoena", zioen Itsasok. Pixka bat penatuta ere bazegoen, baina "datorren urtean bueltatuko naiz", esan zuen ziurtasunez lagunekin biltzera zihoanean.





ARRASATE Argazkian, Herri Arteko Pilota Txapelketako jokalariek.

GOIENKARIA

PILOTA > HERRI ARTEKO TXAPELKETA

## Arrasatek abantaila du final laurdenetako kanporaketan

Arrasatearrek 2-1eko abantaila hartu dute Azkoitiaren aurkako kanporaketan; halaber, Bergarak 2-1 galdu zuen Ataunen aurkako lehia

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Herri Arteko Pilota txapelketako final laurdenetako joaneko partiduak jokatu dituzte aste bukeran Arrasatek eta Bergarak.

Bi taldeek etxetik kanpo jokatu dute. Hala, arrasatearrek abantaila hartu dute, 1-2, Azkoitiaren aurka; aldiz, Bergarak bi partidu galdu zituen Ataunen.

ARRASATE

Arrasateko taldeak kadete eta senior mailetako partiduak irabazi zituen.

Kadeteetan, Bolinagak eta Agirregabiriak 22-7 eta, senior mailan, Axpek eta Uribarrenek, 22-5 irabazi zuten Azkoitiako bikoteen aurka. Gazte mailako bikoteak, Aranek eta Zubizarre-

tak, galdu zuen kanporaketako partidu bakarra: 22-2.

BERGARA

Kanporaketa zailago jarri zaio Bergarako taldeari. Ataunen jokaturako bi lehia galdu dituzte: Resustak eta Irizarrek, 8-22 galdu zuten kadete mailan, eta Perezek eta Larreategik, 2-22, gazte mailan. Halaber, senior mailako bikoteak, Muguruzak eta Hernandezek, lortu zuten garaipen bakarra: 22-3.

Final laurdenetako kanporaketa aste bukeran erabakiko da, Bergaran eta Arrasaten.

ARETO FUTBOLA > IGOERA FASEA

## UDAK laugarren postuan amaitu du igoera fasea

Final nagusian, Mutriku 1-0 nagusitu zen Astigarragako taldearen aurka, zapatuan

A. EZKIBEL > ARETXABALETA

Igoera lortzeko lehia, hirugarren eta laugarren postuak jokatu zituzten aretxabaletarrek zapatuan Hernaniren aurka. Hala, lehia berdintsua izan arren, etxeko taldeak galdu egin zuen (5-4) eta laugarren postuarekin konformatu behar izan dute UDAko jokalariek.

Azkenean, baina, penalti bat izan zuten kontra UDAkoek, eta lehia galdu egin zuten. Hala ere, Aretxabaletako jokalariek pozik zeuden egindako lanarekin: "Hernani gu baino talde hobea da, beraz, pozik gaude egin dugun lanarekin", azaldu zuen, lehia amaieran, Martin Antxia jokalariek. Egin duten denboraldia azpimarratzekoa izan dela ere esan zuen Antxiak.

AZKEN UNEAN, PENALTIA

Nahiko lehia parekatua izan zen zapatukoa. Hasierako minutuetan, Hernaniko taldea aurretik izan zen markagailuan, baina, gero, etxekoek berdindu egin zuten; ez hori bakarrik, markagailuan aurretik ere jarri ziren.

FINALEAN, MUTRIKU NAGUSI

Finala Mutrikuk eta Astigarragak jokatu zuten. Mutrikuarak 1-0 nagusitu ziren eta, hala, lehenengo postua eta garaikurrak eskuratu zituzten.



GARAIKURRA Mutrikuko jokalariek garaipena ospatzen.

JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA > BETERANOEN TXAPELKETA

## Fraka Motz nagusi, Oñatiko beteranoen futbol txapelketan

Penalti jaurtiketetan erabaki zen, Azkoagainen, Txarrixak taldearen aurka jokaturako finala; halaber, Txuskosek irabazi zuen kopa txapelketa

M.B. > OÑATI

Penalti jaurtiketekin erabaki ziren, zapatuan, Azkoagainen jokaturako Herriko Futbol txapelketako finalak. Hala, Fraka Motz eta Txuskosek irabazi zituzten ligako eta kopa txapelduendako sariak.

PENALTI JAURTIKETAK

Beteranoen 2006-07 denboraldiko final handian, Txarrixak eta Fraka Motz taldeak lehiatu ziren. Arauzko 80 minutuak 2-2 bukatu ondoren, penalti jaurtiketetan erabaki zen txapelketa: Txarri-

xak taldeak penalti bat huts egin da, Fraka Motzek irabazi zuen.

Partidu haren aurretik, kopa txapelketako finala jokatu zen. Garratzenak eta Txuskos taldeen arteko lehia ere, berdinketarekin bukatu zen: 1-1. Penaltietan, Txuskos izan zen hobea.

Zapatuan, Azkoagainen jokaturako hirugarren partidua liga txapelketako kontsolazio finala izan zen; Gibel Boys taldeak irabazi zuen Joxely-ren aurka,

Urrian hasi zen beteranoen futbol txapelketan, 22 taldek jokatu dute.



TXAPELDUNAK Fraka Motz taldeko jokalariek, sariak jaso ondoren.

MIREIA BIKUÑA



## Chevrolet Captiva berria.

Begirada guztien gunea.



**CAPTIVA** Captiva Chevrolet berria, bost edo zazpi jarlekurekin. ESPa barne daukan ekipamendua, autoa ez iraultzeko kontrola, balaztatze asistentzia, jaitsiera kontrola, 6 aire-poltsa, aire-girogailu automatikoa, cruise kontrola, argi sentsorea, aparkatze sentsorea, MP3a duen CDa. 18"-ko hagunak eta Urre Zerbitzu eksklusiboa. (bertsioen arabeko ekipamendua).

**CHEVROLET CAPTIVA BERRIA**  
150 ZP-ko diesel motorra  
136 ZP eta 230 ZP-ko gasolinazko motorrak  
23.800 €-tik aurrera

ES MÁS.



CHEVROLET

**Giauto**

www.giauto.es  
clientes@giauto.es

EIBAR  
Otaola, 27  
943 202 500

OLABERRIA  
Karobi Ind.  
943 885 150

salmentak: 902 345 225  
tailerra: 902 345 235

Penintsulan eta Balear uharteetan gomendatutako prezioa Captiva 2.4 LS autoarentzako (BEZa, matrikulazio zerga, garraioa eta Prever Plana barne). Promozio baliagarria hilabete bukaera arte. Kontsumo mistoa (l/100 km): 7.4-115.5. CO2 emisioa (g/km): 197-264. Hiru urteko bermea edo 100.000 km: kilometroen muga ez da lehen bi urteetan ezartzen. (Bermeen legea: 23/2003).

## Oraindik badago geratzeko arrazoirik. Erregaia botatzea ez da horietako bat.

Chevrolet Lacetti TCDi berria. Dibertsio gehiago. Geldialdi gutxiago.



**LACETTI** LACETTI. Chevrolet Lacetti berria 121 ZP diesel TCDi motorrarekin, EBDdun ABSa, airbag bikoitza, alboko aire-poltsak, ISOFIX lokailuak, klimatizagailua, abiaduraren kontrol automatikoa, diesel partikulen iragazkia... (Bertsioen arabeko ekipamendua).

**Lacetti 1.4 SE**  
Sarrerarik gabe  
125€/hileko - 118 kuota  
Prever plana barne. %6,77 UT

ES MÁS.



CHEVROLET

**Giauto**

www.giauto.es  
clientes@giauto.es

EIBAR  
Otaola, 27  
943 202 500

OLABERRIA  
Karobi Ind.  
943 885 150


salmentak: 902 345 225  
tailerra: 902 345 235

Lacetti 1.4 SE 16V modeloa. PSP: 11.121 € (Prever plana eta sustapena barne). Kuotak: 1.tik 118.era 125€-koak. Finantzatutako zenbateko osoa: 15.028,03€. TIN: %6. UTB: %6,77. Irekiera komisioa: %2,5 (278,03€). Eskaintza ezin da beste sustapenekin bateratu, 2007/05/31ra arte balio du Penintsularako eta Balearretarako. Finantzazioa: Finanzia Banco de Crédito, SA. RBE: 1668/07. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,7-8,8. CO2 isurketa (g/km): 146-210. 3 urteko edo 100.000 km-ko bermea: kilometroen muga ez da aplikatzen lehen bi urteetan (Bermeen Legea: 23/2003).





> **'EGIN KANTU'**  
Elgetako Espaloian grabatu zuten lehiaketaren finala > 25



> **TRIKITIXA**  
III. Debagoieneko trikitixa eguna ekainaren 2an ospatuko da > 26



> **RADIO WINGS**  
Taldearen gainean eta euren diskoaren gainean elkarrizketa > 27



> **JOSEBA IRIONDO**  
Kazetari horrekin berba egin dugu > 29

## III. Mendi Azoka Hiru Tenpluen ibilbideak hasi du

Zapatuan izan zen martxa: Loiolako Santutegian hasi, handik La Antiguako ermitara joan, eta Arantzazuko Santutegian amaitu zen

Mundumirako ekintza izan da, eta, jaialdian, mendi igoerak eta bisita gidatuak egingo dituzte

Euskal Herriko II. Boulder Txapelketa jokatu da ekainaren 3an Aretxabaletako frontoian

**EDURNE BURGAÑA > ARETXABALETAKO**  
Zapatuan, mendia gustuko dutenek, ibilaldi polita egiteko aukera eduki zuten. Hori bai, ez zen edonork egiteko modukoa: hankak ondo gogortuta dutenek soilik. Izan ere, Hiru Tenpluen Ibilbidea egin zuten, 45 kilometroko ibilbidea.

Mundumira jaialdiaren barruan antolatzen den Mendi Azokaren egitarauko martxa izan zen zapatukoa. Mundumira jaialdia ekainaren 1ean hasiko bada ere, III. Mendi Azoka martxan dago.

Hiru Tenpluen Ibilbidea Loiolako Santutegian hasi zuten mendizaleek. 45 kilometrotako ibilbidea egiteko, garaiz hasi behar, eta 06:00etan izan zen irteera. Handik La Antiguako ermitara arte joan ziren, eta, amaitzeko, Arantzazuko Santutegira. GR 120 bidea da egin zutena, eta Aloña Mendi elkarteekin egin zuten.

### MENDI IGOERAK

Mendi Azokaren barruan, mendi igoerak eta bisita gidatuak egiteko aukera ere egongo da. Mendi igoerak ekainaren 2an eta 3an izango dira.

Ekainaren 2an bi proposamen daude: lehenengoa, Andar-tora igoera izango da, eta Degurixatik igoko dira. Irteera 08:00etan izango da, Bigarrenen, Arrikruzeko kobak ikusteko aukera egongo da Oñatiko Natur Eskolako gidaritzapean; kasu horretan, irteera 09:00etan egingo dute.

Ekainaren 3an, beste bi aukera daude mendiarekin lotuta: batetik, Kurtzebarri-Arangure-

nera igoera, Murruxiko Mendi Elkarteekin, 08:00etan hasita; bigarrena, Apotzaga, Asensio-mendi, Untzilla, Murugain eta Izurieta ibilbidea, Zaraia Mendi Elkarteok lagun direla. Bigarren ibilaldi hori 09:00etan hasi da.

### BISITA GIDATUAK

Irteera horietan parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman beharko dute, 902 181 471 telefonora deituta.

Bisita gidatuei dagokionez, sei izango dira: Elgetan, Erdi Aroko gunearen bisita; Arrasaten ere Erdi Aroko gunea; Oñatin, Sancti Spiritus Unibertsitatea, San Migel parrokia eta San Migel errota ikusiko dituzte; Antzuola ezagutzeko bisita; Bergara monumentala; Eskoriatzako Ibarraundi Museoa, eta Leintz Gatzagako Gatz museoa ikusteko aukera egongo da ekainaren 2an eta 3an.

### BOULDER TXAPELKETA

Mundumira jaialdiaren barruan, beste hitzordu bat ere egongo da. Izan ere, Euskal Herriko II. Boulder Txapelketa jokatu da ekainaren 3an Aretxabaletako Iturrigorri Frontoian.

Euskal Herrian espezialitate horretan ibiltzen diren eskalaitzaile onenak ikusteko aukera egongo da Aretxabaletako frontoian. Horretaz gain, ekitaldi horretarako, EMFk diseinatutako eskalada egitura ikusgarria ikusteko aukera ere egongo da.

Izena emateko epea zabalik dago; horretarako, [www.emf-jvm.com](http://www.emf-jvm.com) helbidean sartu.



PARTE HARTZAILEAK Hiru Tenpluen ibilbidea Arantzazun amaitu zen; irudian, aurten martxa egin dutenak. JOSETXO ARANTZABAL

### III. Mendi azokaren barruan, proiektzioak eta erakusketak

Mundumira Jaialdia ekainaren 1etik 3ra egingo da Aretxabaletan. Jaialdiaren barruan, III. Mendi Azoka ospatuko da, baina ekimen batzuk maiatzean hasiko dituzte: ikus-entzunezko bi emanaldi, hain zuzen ere.

### AUKERA BAT BAINO GEHIAGO

*Mont Blanc: Lau bide Euskal Herriko emakumeentzat* izeneko emanaldia aurkeztuko du Marimendi elkarteak, etzi, eguaztena, Arrasateko Kulturteko areto nagusian eta eguenean Oñatiko kultur etxean, 19:00etan biak.

*Delhitik Katmandura bizizkletaz* emanaldia bihar, Antzuolako Olanaren etxean, eta etzi, Bergarako kultur etxean, ikusi ahal izango da, 19:00etan.

Mundumiraren egun berberetan izango dira hurrengo ekimenak. Hala, ekainaren 1ean, egubakoi-tza, Aretxabaletako Otalora jauregian hitzaldi bat egongo da: *Euskal alpinismoko aintzindariak*. Antxon Iturriaz euskal mendizalearen historian lehenengo urratsak eman zituzten pertsonak eta abenturak gogoratuko ditu.

Ander Izagirrek *Vespaña, Espainiako bideetatik bidaiatzen* emanaldia egingo du. Espainiako errepide-etatik Vespa motorrez egindako bidaia azalduko du: egun haietako bizipenak, irudiekin lagunduta.



MARIMENDI Elkarte horren lana, irudian. GOIENKARIA

Bestalde, Iñaki Otxoa de Olza Kurtzebarri eskolan egongo da ekainaren 2an, 12:30ean *Cielo, infierno, Himalaya* lana aurkezten.

Argazki erakusketak ere zabalduko dute, Kurtzebarri eskolan: Juan Ramon Llavoriren *Lurraren begiradak* lana ikusi ahal izango da Aretxabaletako eskolan.



German Meababasterretxea > Mankomunitateko Kultura Saileko teknikaria

## "Kanpotarrek ibarra ezagutzen dute; bertakoek, kultura eskaintza gozatu"

EDURNE BURGAÑA > OÑATI

**Mankomunitateko Kultura Saileko teknikaria da German Meababasterretxea, eta jaialdiaren ingurukoak kontatu dizkigu.**

**Mundumira jaialdia noiz eta zein helbururekin sortu zen?**

Orain dela hiru urte sortu zen Mundumira jaialdia. Arrasaten izan zen estreineko edizioa, 2005ean. Debagoieneko Mankomunitateak plan estrategiko bat burutu zuen. Debagoiena turismoaren eta kulturaren ikuspuntutik mapan kokatu eta ezagutaraztea izan zen helburu nagusietako bat. *Euskal Herria* aldizkariak eta Gin Tonic enpresak Mundumira antolatzeak aukera aurkeztu zutenean, Mankomunitateak bat egin zuen egitasmoarekin eta, aurretik, hirugarrenez, elkarlanean aurrera aterako dugu.

**Aurtengoa jaiaren hirugarren edizioa izango da, eta hirugarren herria. Zergatik aukeratu duzue Aretxabaleta?**

Lehenengo edizioa Arrasaten izan zen, bigarrena Oñatin, eta aurtengoa Aretxabaletan egitea erabaki zen Mankomunitateko Turismo eta Kultura batzordeak. Zergatik Aretxabaletan? Bi arrazoirengatik: prest agertu delako aurtengoa bertan egiteko, eta antolakuntzak jarritako baldintza teknikoak betetzen dituelako.

**Urtero Oñatin egingo zela zabaldu zen herrietan. Hori egia da?**

Bigarren edizioa Oñatin oso ondo ateratu zen. Jendearen partaidetza handia izan zen, bisitariak ere



GOIENKARIA

asko, eta jaialdiak eskaintzen dituen gune guztiek arrakasta nabarmena izan zuten.

*Euskal Herria* aldizkariaren eta Gin Tonic ekoiztetxearen ustez, Oñatik baldintza paregabeak ditu era honetako jaialdi bat aurrera eramateko: erdiguneak baldintza oso egokiak eskaintzen dizkio jaialdiari. Aldi berean, espazio zabalak ditu, baina gune guztiak plaza inguruan bilduta geratzen dira. Hori horrela, Oñatin jarraitzea eskatu zuten.

Debagoieneko Mankomunitateak, aldiz, jaialdiaren izaera amankomuna eta ibiltaria kontuan izanik, aurtengoa Aretxabaletan egitea erabaki zuen.

**Aurreko bi edizioekin alderatuta, ze berrikuntza dakartzate aurtengo Mundumirak?**

Berrikuntza nabarmenik ez dago, jaialdiak bere sorrerako ildo nagusiak gordetzen ditu. Munduko musika, gastronomia, artisautza eta mendiazoka uztartzen ditu. Bestalde, ezin da aipatu gabe utzi bailarako Gobernu Kanpoko Erakundeek izango duten partaidetza; horregatik, elkartasunaren festibala dela esan genezake.

**Zer da jendeari gehien gustatzen zaiena? Zerk erakartzen du gehien?**

Nik uste dut, orokorrean, jendeari jaialdiaren inguruan sortzen den giroa gustatzen zaiola. Kanpotarrek Debagoieneko herri bat ezagutzeko aukera dute, eta herritarrek edo bailarakoek hiru egunetan kultur eskaintza paregabe batez gozatzeko aukera dute.

**Iaz kamisetak saldu zenituzten. Aurtengoa ere egongo da jaialdiko den produkturik?**

Aurtengoa ere kamisetak salgai egongo dira. 600 kamiseta atera dira, eta aipatu behar da salmentak ematen dituen irabazien zati bat Gobernu Kanpoko Erakundearen proiektuak laguntzeko izango dela.

**Aretxabaletara autoz joateko asmoa duenak aurkituko du aparkatzeko lekurik? Aparkatzeko guneak antolatuko dituzue?**

Aretxabaletako Udala herriko zenbait enpresarekin harremanetan jarri da, asteburu horretan enpresa horien aparkalekuak jendearentzat zabalik egon daitezkeen. Erantzunaren zain gaude, baina ez dugu uste arazorik izango denik. Aparkaleku guneak markatuta egongo dira.

**Aurtengoa etorriko diren taldeak, zergatik aukeratu dituzue?**

Baldintza asko daude kontuan izan beharrekoak: katxea, *rider* teknikoak, biran dauden artisten datak... Gin Tonic eskoiztetxeak aukera batzuk planteatu zituzkion, eta horietatik batu ahal izan ditugunak egongo dira Aretxabaletan.

**Ze lotura dute Mundumirarekin?**

Talde gehienek munduko musika egiten dute, eta Mundumiraren filosofiarekin bat datoz. Nik ez nuke bat bakarrik aukeratu; aurreko edizioetan ere, kontzertu nagusiek arrakasta izan zuten, baina kaleko ikuskizunek eta formato txikiko taldeek jarri zuten giroa.

## Mundumira Jaialdiko egitaraua, egunez egun

### Ekainak 1

17:30 Hasierra ekitaldia.  
19:00 Emanaldia: *Euskal alpinismoaren aitzindariak*, Antxon Iturrizaren eskutik. Otarora Jauregia. Argazki erakusketa: Juan Ramon Llavoriren *Nepal, lurraren begiradak*. Kurtzebarri Eskola.  
Elkarren *Munduari bira* marrazki-lehiaketako erakusketa eta sariak ematea. Kurtzebarri Eskolan. Grafitien erakusketa eta lehiaketa, Herriko plazan.  
19:30 Festicultores Troupe (Galizia).  
20:00 Diaporama: *Vespaña, Espainiako bideetatik bidaiatzen*, Ander Izagirrearen eskutik. Otarora Jauregia.

### Elkar aretoa

20:30 Mariana Ramos (Cabo Verde) *7 sois 7 luas* munduko musika-jaialdi ospetsua zortzi herrialdetan eta 30 hirietan egiten da, eta oraingoan, Mundumirarekin bat egin du.  
23:00 Gecko Turner (Extremadura).

### Ekainak 2

**XI. Nekazaritza, abeltzaintza eta artisautza azoka Eskoriatzan.**  
08:00 Mendi-igoera Andarito Degurixa ingurutik  
09:00 Arrikutzeko kobak  
11:00 Kultur ibilaldiak. Debagoieneko turismo-bulegoa.  
11:30 Umeentzako gunea: munduko antzerkia eta jolasak Eidaberekin. Kurtzebarri Eskola. Antzerki saioa, Arizmendi ikastolako ikasleen eskutik.

Lotutako hegaldiak baloi aerostatikoen egun osoan. Kiroldegia.  
11:00-14:00 / 17:00-21:00 Munduko Artisautza Azoka alde zaharrean. Munduko zaporeen gunea, Foro Solidarioa eta Mendiko Azoka.  
12:00 Les Bestioles de la Garriga (Okzitania)  
12:30 Diaporama: *Cielo, Infierno, Himalaya* Iñaki Otxoa de Olzaren eskutik (Lorpen). Kurtzebarri Eskola.  
13:00 Mamadu (Ginea Bissau).  
17:00 Umeentzako gunea: munduko antzerkia eta jolasak Eidaberekin. Kurtzebarri Eskola.  
18:00 Euskobalcanic azokaren agertokia. Balkanetako akordeoiak trikitixarekin nahasten dira.  
19:00 Jaipur Kawa Brass Band (India).  
21:30 Artea teatroa (Aragoi).

### Elkar aretoa. Herriko plaza.

12:00 Echa paká (Kuba)  
13:00 Trío Forróbódó (Brasil).  
18:30 Albalá. Arabiako dantza tradizionalak.  
19:30 Tomas San Miguel eta Ttukunak (Euskal Herria).  
21:00 Dam. Hip Hop (Palestina).  
00:00 Kiko Veneno (Katalunia)

### Ekainak 3

08:00 Mendi-igoera: Kurtzebarri-Aranguren (Murruxio Mendi Taldea)  
09:00 Apotzaga, Asensiomendi, Untzilla, Murugain, Izurieta ibilaldia (Zaraia Mendi Taldea)

11:00 Kultur ibilaldiak. Debagoieneko turismo bulegoen eskutik. Informazioa: euren postuan

Euskadiako Boulder Txapelketa (Iturrigorrri Frontoian)

11:00-14:00 Umeentzako gunea: Munduko antzerkia eta jolasak Eidaberekin.

12:00 Musikaz alaitutako kalejira: Les Bestioles de la Garriga.

Bartzelonako Orkestra Arabiarra: Bartzelonako orkestra arabiarra Maroko, Grezia eta Kataluniako musikariek osatzen dute, eta, oraingoan, proposamen berezia aurkeztu dute, Mediterraneoko estiloen eta kulturen arteko fusio bikainaren bitartez.

13:00 Romani Chavé (Bulgaria) *La Caixa*. Gizarte Ekintza Talde honek Balkanetako eta, bereziki, Bulgariako ijitoen musika alaiak gozatzeko aukera ematen digu; proposamen freskoa da, eta emozioa eta sentimenduak azaleratzen ditu.

17:00 Euskadiako Boulder Txapelketako finalak jokatuko dituzte

17:00-20:00 Munduko Artisautza Azoka egingo dute  
Munduko Zaporeen gunea  
Foro solidarioa

Mendiko azoka  
Eusko labeldun txahala erreko da goiz osoan Gernika plazan  
Festa amaiera, perkusio taldearen eskutik



TALDEAK Goian Dam, eta behean Gegko taldeko kideak.



TELEBISTA > 'EGIN KANTU' SAIOAREN FINALA

# Telebistako plato bihurtu zen Espaloia neska-mutikoen kantu lehiaketarako

Bost egunetako saioak grabatu zituzten eguenean Espaloian; tartean, final handia. Ekainaren lehen astean emango dute lehiaketa ETB1en

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Elgetako Espaloia musikaz, argiz eta kolorez jantzi zen eguen arratsaldean Euskal Telebistako *Egin Kantu* saioko finala grabatzeko. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparraldeko 27 herri bisitatu ostean iritsi ziren Elgetara. Bost egunetako saioak grabatu zituzten. 12 lagunek bakarika zein taldeka abestu ostean, lau finalista aukeratu zituzten. Ekainaren lehen astean emango dute saioa.

Entseguetan aurkitu genituen partaideak eta Nerea Alias aurkezlea, baina tarte bat egin zuten gurekin berba egiteko. Saioa gus-tuko duela esan zigun Aliasek: "Umee-kin lan egitea aberasgarria



AMAIERA Saio bakoitzaren bukaeran, *Egin kantu* abestia kantatu zuten eguneko partaideek, aurkezlearekin.

I.A.

da, Euskal Herriko txoko askotan egon gara eta, gainera, oso programa betea da: ikuskizuna, musika, elkarrizketak, erreportajeak... denetarik dauka". Lazkaoko Ane Negeruelak asko entseatu ostean *Izaren atzera* eta *Hau da gaua* kan-

tatu zituen. Urduri zegoen jendaurrean abesteko. Bastidako Matixa Oterok *Jaso dezagun euskara* eta *Alai elkarrekin* abestu zituen. "Nik baino hobeto abesten dute beste batzuek eta ez dut nire burua irabazle ikusten", zioen.

**KANTU ETA DANTZA ERRITMO ASKO** Grabaketa hasterako, publikoan ziren Lazkao, Bergara, Zarautz, Getaria eta Elgetako neska-mutikoak. Motel hasi arren, animatzaile-rik onenendako sariak egongo zirela esan orduko, oi huak, txalo-

ak eta dantzak ugaritu egin ziren: saltoka, kantu alaiekin, eta besoak mugituz, motelekin. Publikoan, aurpegi ezagunik ere ikusi genuen, Amaia Zubiria abeslaria, esaterako.

Egun bakoitzeko saioa grabatu zuten. Taldekako abestia lehenengo, arropak aldatu eta bakar-ka gero; eta dantzariak, azkenik. Saio bakoitzean *Egin kantu* abestia-ekin amaitu zuten. Partaideek ez ezik, aurkezleak ere egun bakoitzeko arropa aldatu zuten.


Kantuak, askotarikoak: ska doinuak, lasaiak, dantzagarriak... Talde askoren abestiak entzun ziren: Negu Gorriak, Skalaria, Julieta Venegas...

Batzuek lanak izan zituzten dantza eta kantua bateratzeko, baina ahaleginak eman zuten fruiturik, eta, artisten pare, ikuskizun polita eskaini zuten.

Amaieran, Ane Negeruela lazkaotarra izan zen *Egin Kantu*-ko irabazle. Eramateko DVDa; Betizu kantu lehiaketako irabazleek aurki kaleratuko duten diskoa; eta ekainaren 10ean, Bilboko Betizu jaian kantatzeko aukera jaso zituen sari moduan.



ANDAMIORIK GABEKO LANAK



680 641 401  
676 952 968  
www.nanarri.com

Fatxaden eta barruko patioen berrikuntza eta pintaketak

Teilatuak • Kanaloiak • Bajanteak  
Tximiniak • Altuerako kimatzeak





OSPAKIZUNA Jazz emanaldia ere egin zen ekitaldian.

ARTEMAN

EUSKARA &gt; TOPAGUNEAREN URTEURRENA

# Topaguneak hamar urte bete dituela ospatzeko, ekitaldiak

Eguenean egin zuten, Durangoko Plateruena Kafe Antzokian, ospakizun ekitaldia; hurrengoa Bilbon egingo dute, ekainaren 16an

EDURNE BURGAÑA &gt; BERGARA

Euskara Elkartearen Federazioa da Topagunea, eta hamar urte bete ditu aurten. Hori ospatzeko, 2007. urterako hainbat ekitaldi antolatu dituzte; lehena pasa den egunean izan zen, Durangon.

Plateruena Kafe Antzokiko ekitaldian, Kike Amonarriz ibili zen aurkezle lanetan. Iñaki Arrutik Topagunearen sorrera garaiak gogoratu zituen, eta egungo presidente Karmen Irizarrek federazioaren etorkizuneko planak azaldu zituen.

Goienako zuzendari nagusi Inazio Arregi ere Durangoko ekitaldian izan zen.

MINTZA EGUNA

Hurrengo ekitaldi publikoa Bilboko kaleetan izango da, ekainaren 16an. *Zazpi kale kultur topagunea* izena edukiko du. Urteko azken ekintza azaroan Donostian egingo diren jardunaldi batzuk izango dira.

Baina Topaguneak, ospakizun ekitaldietatik kanpo, beste hainbat kontu ere baditu mar-

txan. Ekainaren 2an, Mintza Eguna ospatuko da Donostian. Mintzapraktika egitasmoaren parte direnentzako jaia da. Egun pasa antolatu dute Donostian: goizean ibilaldia alde zaharrea, bertako historia ezagutzeko, eta gero, bazkaria; ostean, omenaldia.

GRAFITI LEHIAKETA

Gainera, Euskal Herriko IV. Grafiti lehiaketa ere antolatu du Topaguneak. Aurtengo edizioa Gernika-Lumon izango da, uztailaren 14an. Lanak aurkezteko epea uztailaren 4an amaituko da.

Parte hartzeko eskariarekin, egin nahi den grafitiaren zirriborroa aurkeztu behar da eta epaimahaiak aukeratuko ditu uztailaren 14rako parte-hartzaileak.

TRIKITIXA &gt; DEBAGOIENEN TRIKITIXA EGUNA

## III. Debagoieneko Trikitixa eguna ekainaren 2an ospatuko dute, Bergaran

22:30ean, kontzertua egingo dute Munibe plazan Gozategi eta Gose talde ezagunek

E.B. &gt; BERGARA

III. Debagoieneko Trikitixa eguna Bergaran ospatuko da. Arrasaten ospatuko zen lehenengo bider, eta Aretxabaletan, iaz. Aurten, Bergaran izango da jaia, ekainaren 2an.

EGITARAU ZABALA

Musika eskolak eta Jardunen trikitixa eskolak elkarlanean antolatutako ekimena da. Helburu nagusiak trikitixa eskolatan dituzten ikasleak kalera ateratzea, eta beraien arteko giroa sortzea direla argitu dute antolatzaileek; horrela, elkar ezagutu eta egiten den lan isila kalera ateratzen dute.

Egun osoko hainbat ekitaldi antolatu dituzte musika eskolak eta trikitixa eskolakoek; goizetik hasi eta gaueko ordu txikiak arterakoa.

Eguna hasteko, 10:30ean ongiatorria emango zaie Debagoieneko trikitilari eta pande-

ro-joleei, Munibe plazan. Hamaiketako egingo dute bertan musikariek.

11:30etik aurrera, Bergarako kaleetan zehar kalejira egingo dute. III. Debagoieneko Trikitixa eguna San Martinen ospatuko da. Bertan, jaialdia egingo dute 13:00etan Debagoieneko trikitilariak. Ostean, 14:30ean, bazkaria eta, horren atzetik, 17:30ean hasita, erromeria Trikidantz taldearekin.

Eguna amaitzeko, Gose eta Gozategi taldeak arituko dira 22:30etik aurrera. Bi talde ezberdin ekarri nahi izan dituztela azaldu dute antolatzaileek: "alde batetik, ezaguna diren Gozategitarrak; eta bestetik, trikia eta elektronika nahasten duten Gose arrasatearrak".

Herri bazkarirako txartelak trikitixa eskolatan eta Bergarako Kortazar tabernan daude salgai. Erosteke azken eguna bihar, martitzena, da.



PRENTSAURREKOA III. Debagoieneko trikitixa eguna aurkezten.

JARDUN

MUSIKA &gt; BERGARAKO MUSIKA ESKOLAKO ORKESTRA

## Bergarako musika eskolako orkestrak Elgetan joko du

Ekainaren 3an izango da kontzertua, 13:00etan, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian

E.B. &gt; BERGARA

Bergarako musika eskolako orkestrak kontzertua emango du Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Ekainaren 2an, domeka, izango da emanaldia, 13:00etatik aurrera.

COMBOKOAK, ZUMARRAGARA

Andoni Sierraren zuzendaritzapean joko dute Bergarako musika eskolako orkestrako gazteek.

Baina orkestra ez da izango emanaldia egingo duen talde bakarra. Izan ere, Zumarragako musika eskolak talde moderno- en lehiaketa antolatu du. Ekainaren 2an eta 3an izango da hitzordua, eta bertan egongo dira Bergarako bi combo taldeak.

Bestalde, musika eskolak gogorarazi nahi du matrikulatzeko epea ekainaren 15era arte dagoela zabalik.



GAZTETXOAK Musika eskolako orkestrako kideak.

GOIENKARIA



# "Rock-and-rollaren hizkuntza, guretzako, ingelesa da"

EDURNE BURGAÑA > ARRASATE

Debagoiengan punka egiten duen talde bat baino gehiago dago. Baina Arrasaten bertan rocka egiten duenik ere badago. Radio Wings taldea da horren erakusgarri.

## Noiz sortutako taldea da?

2002 urtean sotutakoa da. Fase Terminal taldeetik dator, gainera. Urte horretan, Arrasateko Gaztetxearen urtemuga jaia egin zen, eta bertan jotzeko sortu genuen taldea. Ondo irten zen, eta aurrera jarraitzea erabaki genuen.

## Lehen, Chicos Boom deitzen zineten...

Kontua da Chico Boom izeneko talde bat ere bazegoela, eta hark izena erregistratu zuela. Horrenbestez, batetik jendea nahasteko arazoa zegoen, eta bestetik, izena erregistratuta zegoenez, guk plagiatu egingo genukeen. Beraz, izenez aldatzea erabaki genuen.

## Zergatik Radio Wings?

Ez dauka inolako zentzurik. Taldeari izen bat jarri behar zitzaionez, zerbait asmatu behar zen. *Radio*, musika entzuteko aspaldidanik dagoen tresna delako; eta *wings*, hegoak. Ez dauka zentzu berezik, gustatu egiten zaigu.

## Zeintzuk zarete taldekideak?

Danel Markaidek 23 urte ditu eta abestu eta gitarra jotzen du; beste gitarra Jon Garcia da, eta 24 urte ditu; Enaitz Etxeberriak bateria jotzen du, eta 23 urte ditu, eta Borja Hernandezek 22 urte ditu eta baxua jotzen du. Arrasatekoak gara guztiok, eta koadri-la berekoak, gainera.

## Disko bat atera duzue...

Legarreko estudioan grabatu genuen, eta bi zatitan egin genuen lana. Abenduan, Enaitz eta Borja ibili ginen grabatzen; beste biek azterketak zituzten urtarri-lean, eta ezin izan ziren etorri. Martxoan, gitarra eta ahotsak sartu genituen. Diskoa grabatzea esperientzia berri bat da, eta musikari batentzako oso garrantzitsua da hori egitea.

## Zergatik diozue hori?

Ez da gauza bera musika egiten egotea, eta entzutea. Entzuten hasten zarenean, zure akatsak zeintzuk diren ikusten duzu; ikusi baino, entzun. Gu konturatu ginen, musika aldetik, nahiko landuta daudela gure abestiak, baina, ahots aldetik, orain hobetzeko gauza asko ditugula. Konturatu gara gure taldea zuzeneko taldea dela. Kontzertuan indar handiagoa daukagu: ezin da indar hori islatu diskoan. Baliabide teknikoak edukiz gero, akaso; baina, gure mailan, ezin izan dugu.



GORKA MORRAS

## Radio Wings izeneko diskoak ze musika mota gordetzen du?

70eko hamarkadako rocka egiten dugu: ez da hard-rocka, ezta rock-and-rolla ere. Nahasketa apur bat da.

Talde mordo baten eragina dauka gure musikak: Led Zeppelin eta Grand Funk Railroad taldeena, adibidez. Azkenean, talde pila bat gustatzen zaizkigu: bakoitzari bereak.

Gure estiloa egiten saiatzen gara, baina, azken finean hortxe dago beste talde batzuen eragina ere. Izan ere, zaila da zerbait berria egitea.

## Zortzi abestik osatzen dute diskoa, eta ingelesez daude guztiak. Zergatik?

Guretzako, rock-and-rollaren hizkuntza ingelesa da, eta horrela abestea erabaki genuen. Orain, abesti berriak ateratzen gabiltza, eta batzuk gaztelaniaz egin ditugu, baina euskaraz, ez. Gure estiloarekin ez dator bat.


## Ze asmo duzue, aurrera begira?

Eskutitz mordo bat bidali eta leku pila batera deitu dugu, baina guztiak eman digute erantzun bera: "deituko dizuegu". Baina ezer ere ez. Ez dugu erantzunik

jaso. Oso zaila da aurrera irtetea: kanpoko bultzada bat behar da. Punkak arrakasta handia dauka Euskal Herrian, eta talde horiek kontzertuak astebururo edukitzen dituzte. Baina guk atea itxita ditugu.

## Baina lehiaketa baten parte hartu duzue.

Hala Bedi delako lehiaketan parte hartu dugu. Gasteizko txosnen batzordeak antolatutako lehiaketan gaude *Highest Mountain* abestiarekin. Ekainean Hellodoro kontzertu aretoan joko dute aukeratutako sei taldek, eta



### Sei abestik osatzen dute Radio Wingsen diskoa; ingelesez daude guztiak

Arrasateko talde gazte honek -gaztea, taldekideak gazteak direlako; musikari nagusienak 24 urte ditu- 70eko hamarkadako rocka egiten du. Sei abestik osatzen dute *Radio Wings* diskoa; eta guztiak ingelesez abestuta daude.

Ondo dago diskoa, gustatzeko moduko kantuak daude bertan, eta erritmo onekoak. Baina behin zuzeneko kontzertua entzunda, diskoa hanka motz geratzen da.

Zuzeneko kontzertuetan, indar handia dauka taldeak, eta ez dute jakin hori diskora eramaten. Akaso, baliabide tekniko gutxiarekin egindako diskoa delako. Hala ere, diskoan igartzen da birtuosoak direla. Eta kontzertura joandakoan, argi eta garbi uzten dute hori.

Rock klasikoa egiten dute, eta ingelesez, gainera; eta hori, taldekideek ingelesez gutxi dakitela. Debagoiengan gehien egiten den musika punka dela jakinda, talde honek egiten duen musika kontuan edukitzeko modukoa da.

**Edurne Burgaña**

hortik aterako dira Gasteizko jaietan joko duten bi taldeak. Epaimahai bat dago, baina botua eman daiteke [www.gasteizkotxosnak.org](http://www.gasteizkotxosnak.org) helbidean.

## Aurrera ateratzeko lanak egiten dituzue, beraz.

Aurten, ate asko itxita aurkitu ditugu, eta ez digute kontzertu askotarako deitu, baina lehiaketa batean behintzat bagaude, eta datorren urtean ere saiatuko gara zerbait egiten. Bilbo Rock lehiaketan parte hartzen saiatu gara, eta ez dugu lortu; datorren urtean, berriro saiatuko gara.



## gazte zerbitzuak

## BEKAK

> **Koldo Mitxelena eta Arteleku.** Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kultura Zuzendaritza Nagusia. Ikus-artearen, ikus-entzunezko, literatura eta artearen sorkuntzan hasitako arategilei beraien obrak sustatzeko eta proiektuak aurrera eramateko laguntzak. Epea: ekainaren 12a.

> **Europa.** Eusko Jaularitza. Europako gaietan eta eskualdeen arteko lan-kidetzan espezializatzeko bekak. Epea: ekainak 15.

> **Graduondokoak.** La Caixa. 2008-09 ikasturtean AEBtan masterrak, doktoretzak edo graduondoko ikerketak burutzeko 50 beka. Epea: ekainak 15.

## LANA

> **Hainbat.** Langai. Astero berritzen ditugu Gazte Bulegoan Langain jasotzen diren lanpostuen gaineko informazioa.

> **Zuzendaria udalekuetarako.** Sede-na S.L. Udaleku irekietarako aisialdi eta denbora libreko zuzendaria behar dituzte, 7-15 urte arteko gazteekin lan egiteko. Epea: ekainak 15.

## EKINTZAK

> **Kanpaldiak.** Gurutze Gorria. Udaleku irekiak Salinas de Jacan (Huesca), uztailaren 17tik 22ra. Plaza mugatuak. Epea: ekainak 15.

## IKASTAROA

> **Japonia.** Marugame elkarte. Mahuka marrazketa, japoniar herri-jolasak eta japoniar hizkuntzaren has-tapenei buruzko ikastaroak izango dira. Epea: plazak bete arte.

> **Udako Euskal Unibertsitatea.** Uda-ko 35. Ikastaroak uztailaren 2tik 20ra burutuko dira Eibar, Baiona eta Iruñean. Epea: ekainaren 21a.

## LEHIAKETAK

> **%100 Gipuzkoa.** Foru Aldundia eta Amasté. Mobilmetraien lehiaketa. 12-18 urteko gazteei zuzenduta. Informazio zabalagoa: [www.gipuzkoamobil.net](http://www.gipuzkoamobil.net) Epea: maiatzak 31



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:

Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65  
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:

Kultura etxea • 943 77 91 57  
gzerbitzu@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:

Foruen plaza 4 • 943 71 82 57  
gazteinformazioa@oinati.net

## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Antzuola.** Etxebizitza adosatua. Estreinatze. 607 79 00 37.

**Arrasate.** Apartamentua. Arimazubín. Prezio onean eta gutziz berrituta. 687 83 97 37.

**Bergara.** Berritutako baserria. 350.000 euro. 660 04 58 60.

**Bergara.** Boni Laskurain kalean. Eguzkitsua, altzariek. Bizitza-terata sartzeko gertu. Prezio interesgarria. 628 26 65 77.

**Bergara.** Simon Arrietan. 57 m<sup>2</sup>, bi logela. Trastelekuarekin eta igogailuarekin. 649 63 11 74.

**Bergara.** Etxea salgai. 40 m<sup>2</sup>, igogailuarekin. Garajea aukeran. 687 97 64 55.

**Bergara.** Koldo Eleizalde kalean. 97 m<sup>2</sup>. Hiru logela, eguzkitsua eta bista ederrak ditu. Garajea du. 655 71 03 23.

**Bergara.** Zabalotegin. Berrituta eta jantzia. 615 79 41 02.

**Bergara.** Zubiaurren etxebizitza salgai. Berritua. Berogailua eta ganbara ditu. 619 41 39 72.

**Bergara.** Zubietan etxea salgai. Eguzkitsua, prezio interesgarria. 679 45 57 62.

**Ezcaray.** Etxebizitza errentan ematen da uztailan eta abuztuan. Urbanizazio baten dago. Hiru logela dauzka eta herri erdialdean dago. Igerilekua eta lorategia dauzka. Familia baten-tzat egokia. Deitu 20:00etatik aurrera 639 82 42 76 telefono zenbakira.

**Mijas Costa.** Luxuzko urbanizazioan etxea salgai edo errentan. 73 m<sup>2</sup>, terraza handia, igerileku eta garajearekin. Aukera paregabea. 617 41 49 14.

**Oñati.** Apartamentua San Lorentzoz auzoan. Saloi-sukaldea eta bi logela. Eguzkitsua, terraza handiarekin. Garajea aukeran. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

**Oñati.** Aurten eraikiko den etxe berritua baten duplexa salgai. 110 m<sup>2</sup>. Lau logela, sukaldea, egongela, bi komun eta garajea. Deit 670 85 85 41 telefonora.

**Oñati.** Duplexa salgai erdialdean. 120 metro koadro. Kalitatezko materialak. Dena kanpoalde-ri begira. Egongela-jangela, sukaldea, hiruro logela, bi bainu-gela, ikasgela eta trasteleku. 943 78 34 89.

**Oñati.** Etxea salgai San Lorentzoz. 656 74 80 47.

**Oñati.** Etxea salgai Ugarkalde auzoan. Berria. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta terraza. Eguzkitsua. Prezio interesgarria. Lehenbailehen sal-tzeko premia. 670 27 45 82.

**Soraluze.** Bi logela, sukaldea eta komuna. 80.000 euro. Deitu 943 77 21 18 zenbakira.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Aguilas (Murcia).** Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainua. Hondartza 300 metrora. Prezio onean. 656 25 86 44 edo 656 25 86 44.

**Alcoceber.** Estudioa alokagai daukat. 646 31 36 27.

## IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com  
<http://www.goiena.net/sailkatuak>

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEN GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ARRASATE

**Gozotegiak zerbitzari esperientziaduna behar du. Euskaraz jakitea ezinbestekoa.**  
645 99 67 06

## 105. ETXEA OSATU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Ekainetik aurrera. 653 70 50 68 edo 650 93 96 93.

**Debagoiena.** Neska gaztea etxebizitza osatzeko gertu. Deitu 678 28 63 07 zenbakira.

## 2/ GARAJEAK

## 201. SALDU

**Bergara.** Garaje itxia salgai San Lorentzoz. 943 76 40 05.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Zubiaurren. 37 m<sup>2</sup>. Deitu 606 65 97 82 zenbakira.

**Bergara.** Garajea errentan ematen da Ibarra kalean. 943 76 23 53.

**Bergara.** Garajea salgai San Antonion. 21 m<sup>2</sup>, bi altuera. 21.000 euro. 619 65 10 87.

## 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Roneon dagoen garajea errentan ematen dut. 90 euro hilean. 615 70 22 68.

**Bergara.** 108 m<sup>2</sup>-ko garaje itxia alokatzen da. Trasteleku, garajea... Zubiaurren. 943 76 23 53.

## 3/ LOKALAK

## 301. SALDU

**Oñati.** Lokala salgai San Lorentzoz auzoan. 605 77 15 13 edo 605 71 84 94.

## 304. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Lokal bat hartuko nuke errentan. 688 61 89 98.

## 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Etxea garbitzeko nor-bait behar dut asteen bi aldiz, orduka. 600 67 38 65.

**Oñati.** Emakume euskalduna behar da bi ume zaintzeko arratsalde. 680 97 06 31.

## BERGARA

**Biltegi baten lan egiteko gaztea behar da. Fenwicha erabiltzea eta euskaraz jakitea ezinbestekoa.**  
656 72 04 31

## 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu etxeko lanak edo pertsonak zaintzeko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Esperientziadun neska adineko pertsonak zaintzeko prest. Baita gauze ere. Deitu 685 75 43 80 telefonora.

**Arrasaten bizi den neska gazte bat gertu etxeko lanak egiteko (orduak edo barneko langile), umeak edo nagusiak zaintzeko, garbitasun lanak egiteko (elkartetean edo komunitateetan). 620 72 27 30.**

**Bergara.** Adinekoak zaintzen lan egintzaz, gauze. 615 79 41 02.

**Bergara.** Gizonezko gertu nagusiak zaindu edota etxeko lanak egiteko. 650 17 74 87.

**Bergara.** Umeak zainduko nituzte, arratsalde. Umeen heziketa ikasi dut. 630 91 41 90.

**Debagoiena.** Emakume arduratsuak lan egiteko gertu. Deitu 606 20 53 73 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbitzeko lanak egiteko (tabernak eta elkarteak) eta umeak edo zaharrak zaintzeko (orduka). Deitu 637 21 97 04 edo 943 79 39 76 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbitzeko lanak egiteko (tabernak eta elkarteak) eta umeak edo zaharrak zaintzeko (orduka). 697 93 73 32.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbitzeko lanak egiteko, sukaldea laguntzaile izateko edo pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. 646 75 08 07.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldari laguntzaile lan egiteko edo garbitzeko gertu. Deitu 695 78 48 25 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu dago garbitzeko lanak egiteko, pertsona nagusiak zaintzeko, zerbitzari edota sukaldari laguntzaile lanak egiteko. Deitu 627 65 02 71 telefonora.

**Debagoiena.** Neska arduratsuak lan egiteko gertu 08:00etatik 18:00etara. 696 20 73 76.

**Debagoiena.** Neska gaztea lan bila dabil, orduka lan egiteko. 666 67 84 21.

**Debagoiena.** Neska gaztea prest zerbitzari lanak egiteko ondtziak garbitzeko. Autoa du. Deitu 629 80 77 73 zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak gauze zaintzeko gertu. Aste bukaerak barne. 610 36 99 06.

## 5/ IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Arrasate.** DBH2ko ikasle batek eskola partikularrak jasoko litzuke, ahal bezain laster. Deitu 943 79 89 96 telefonora.

## 502. EMAN

**Bergara.** Emakume euskalduna uztailan eskola partikularrak emateko prest. DBHko 4. mailara arte. 635 75 39 51.

**Bergara.** Matematika, fisika eta kalkulu eskolak ematen dira. Maila guztiak. Irakaslea euskaldun berria da. 696 38 10 07.

**Bergara.** Uztailan laguntza eskolak eta ingelesa ematen dira. Batxilergo mailara arte. Deitu 652 73 12 56 zenbakira.

**Bergara.** Uztailan eskola partikularrak emango ditut. Batxilergo mailako 2. mailara arte; eta ingelesko eskolak ere emango ditut. 652 73 12 56.

**Oñati.** Irakasletzan diplomadunak eskola partikularrak emango litzuke uztailan. Deitu 666 21 73 48 telefonora.

## 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**BMW** autoa, 320i e 36 coupe, M5 hagnak, jesarlekuak, diskoa. Disko zuluak. 134.000 km. Ezin hobeto dago. Deitu 659 04 20 99 zenbakira.

**Motorra** salgai. 2005eko. Matrikulatua. Oso egoera onean. Plastikoa kit batekin. Aire filtro bat. 3.800 euro. 635 74 09 70.

**Land Rover** Discovery TDI. 1997ko maiatzekoa. 148.000 km. Ondo. 659 04 20 99.

**Mobilette** GAC 49 cc salgai. Matrikulatuta dago. Oso egoera onean dago, erabiltzen ez baitugu. 659 18 20 45.

**Opel Astra** salgai. 1.200 euro. 1991koa. 180.000 km ditu. Deitu 620 53 83 27 zenbakira.

**Renault Express** furgoneta salgai. SS-AG, 600 euro. Deitu 943 76 18 96 telefonora.

**VW California.** 1996. urtekoa. 636 28 00 07.

## 602. EROSI

**Golf IV** edo A3 TDI autoa erosi-ko nuke. 3 atekoa. Beltza edo grisiluna. Gehienez 140.000 km. 646 80 21 96.

## 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Abantzea.** 4,10 metroko karabana batentzako abantzea salgai. Negu eta udarako. Oso egoera onean. 250 euro. Deitu 696 54 57 28 zenbakira.

**Altzariak** saltzen ditut, bigarren eskukoak. Armairuak, alfibrak, lanparak... Egoera onean. 689 21 72 08.

**Apalategiak** salgai. Ibonengatik galdetu. 943 76 13 48.

**Autokarabana** salgai. 2006ko otsailekoa. TDI 130 ZP. 23.000 km. 667 41 20 33.

**Automobileko** kutxa salgai. Prezioa: 50 euro. 695 70 58 33.

**Bergara.** Lur-saila salgai. Oso egokia bordatxo bat egiteko. 18.000 euro. 678 72 75 72.

**Bizikleta** estatikoa eta abdominalak egiteko taula. Deitu 678 40 57 04 telefonora.

**Bizikleta** salgai. Euskaltel-Euskadi taldearen erreplika. Orbea Arin. Neurria: 54. Dura-Ace osagaiak, Ksyrium SL gurpilak. 1.700 euro. 656 76 89 44.

**Kanpin denda** salgai. Boomerang markakoa. 2 gela eta halla. 2006koa da, oso ondo zaindua. 699 86 29 93.

**Kanpin denda** salgai. Hiru gela eta luzapena ditu. Prezioa: 160 euro. 667 70 18 01.

**Piragua.** Prijon markakoa. Deitu 635 75 70 18 zenbakira.

**Ume-kobxearen** kapota salgai. Hiru hilabetetan bakarrik erabili da. Bebe confort etxekoa. Prezioa: 125 euro. 943 76 71 21 edo 695 70 58 33.

## 802. EROSI

**Txanpon** eta bankuko billete zaharrak erosten eta saltzen ditut. 688 61 85 02.

## 803. EMAN

**Kanpin denda-karroa.** Comancha-Arizona 4 laguntzako karro-denda kendu behar dut. garajetik kentzeko beharragatik dohainik. Deitu 626 43 25 06 edo 943 79 83 26 telefono zenbakietara.

## 806. GALDU

**Bergara.** Motxila eta kontsola-ko zortzi joko galdu ditut Espoioan. 659 05 63 82.

**Oñati.** Urrezko belarritako bat, perla zuri eta zirikonita batekin, galdu nuen hilaren 14an Oñatiko udalxetxe inguruan. Deitu 628 77 98 78 zenbakira.

## 807. AURKITU

**Patinetea** aurkitu nuen Bergarako Espoioan. 666 21 57 72.

## 808. BESTELAKOAK

**Bateria** joko nuke dantzaldietan aritzen den talde batean. Beste proiektu zintzoren baten ere joko nuke. Deitu 687 58 65 69 telefono zenbakira.

Maiatzaren 28a:  
131. zozketaASTELEHENEN GOIENKARIA  
Harpidedun  
**txokoa**

## Zorionak irabazleoi!

Gaur, maiatzak 28, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak! Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleatiko bat!

## Saridunak

Lau sarrera Elgetako ESPALOIAN ekainaren 1ean izango den antzezlanerako

- Dolores Agirre Irasuegi (Arrasate)
- Gaizka Mondragon Arregi (Aretxabaleta)

Sei sarrera BERGARAKO ORKESTRA TXIKIA ikusteko ekainaren 3an.

- Mila Zabala Ibarrola (Bergara)
- Jose Luis Azkarate Zabarte (Arrasate)
- Jose Luis Arotzena Oianguren (Elgeta)

## 132. zozketako saria

- Mundumira jaialdiko bost kamiseta.
- Euskal Herria aldizkariaren urtebeterako lau harpidetza.
- Euskal Herria aldizkariaren bost pack: urteko aldizkari guztiak.

## Harpidedun ez bazara...

Harpidedun egiteko:  
**902 36 38 51**  
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:  
**35 euro**  
2007 bukaera arte.

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa



**astea GOITBn**

**Astelehena, 28**

**Martitzena, 29**

**Eguaztena, 30**

**Eguena, 31**

**Egubakoitza, 1**



**> 'Harmailatik' kirol saioan, aste bukaera osoa 21:15**

Arantzazu Ezkibel kazetari oñatiarrek aste bukaeran kirolak Debagoienan eman duen guztia gerturatuko digu *Harmailatik* saioan.



**> 'Musikantoi' saioan, musikaz gozatzeko aukera 21:15**

Euskal Herriko musika taldeen bideoklipak ikusteko eta bitxikeriak jakiteko aukera izango dugu GOITBk ekoiztutako musika saioan.



**> Bergarako jaien inguruko saio berezia 21:15**

Pazko eta jaien saio berezia eskainiko du GOITBk: Bitoria-naxoren jaitsiera, kaleko giroa, lehiaketak eta beste gauza asko.



**> Marrazki bizidunak etxeko txikientzat 13:20, 20:15**

GOITBk marrazki bizidunen saioak eskainiko ditu gaur etxeko haurrentzat. *Calimero* eta *Boboboak* telesailak emango ditu, hain zuzen.



**> 'Didjeridu', gazteentzako programa 15:47**

*Didjeridu* izeneko saioan, gazteentzako informazio interesgarria eskaintzen zaigu. Bideoak, elkarrizketak, Internet... denetarik ikusgai.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Teknopolis.  
14:15 Ikusten.  
14:45 Albiste aurrerapena.  
15:15 Ilunpean.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Klika.  
16:15 Kirolari.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Calimero.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Ur eta lur.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Erreportajea.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.  
20:45 Berriak.  
21:15 Harmailatik.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 2 x 2.  
22:15 Hasiberriak.  
22:45 Berriak.  
23:15 Didjeridu.  
23:45 Gaurkoak.  
23:30 Ikusmira.  
00:15 Emisio amaiera.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Boboboak.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Harmailatik.  
14:15 2 x 2.  
14:45 Albiste aurrerapena.  
15:15 Eltze beroa.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Telesaia.  
16:15 Ikusmira.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Boboboak.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Ilunpean.  
18:15 Klika.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Harmailatik.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Boboboak.  
20:45 Berriak.  
21:15 Berbaire.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Erreportajea.  
22:15 Harmailatik.  
22:45 Berriak.  
23:15 Klika.  
23:45 Gaurkoak.  
23:30 Musikantoi.  
00:15 Emisio amaiera.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Berbaire.  
14:15 Erreportajea.  
14:45 Albiste aurrerapena.  
15:15 Ur eta lur.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Didjeridu.  
16:15 Eltze beroa.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Calimero.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Harmailatik.  
18:15 Eltze beroa.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Teknopolis.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.  
20:45 Berriak.  
21:15 Erreportajea.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Bergarako jaiak 07.  
22:15 Telesaia.  
22:45 Berriak.  
23:15 Berbaire.  
23:45 Gaurkoak.  
23:30 Ur eta lur.  
00:15 Emisio amaiera.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Boboboak.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Bergarako jaiak 07.  
14:15 Erreportajea.  
14:45 Albiste aurrerapena.  
15:15 Eltze beroa.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Telesaia.  
16:15 Ikusmira.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Boboboak.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Eltze beroa.  
18:15 Teknopolis.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Klika.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Boboboak.  
20:45 Berriak.  
21:15 Berbaire.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Musikantoi.  
22:15 Didjeridu.  
22:45 Berriak.  
23:15 2 x 2.  
23:45 Gaurkoak.  
23:30 Ilunpean.  
00:15 Emisio amaiera.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Berbaire.  
14:15 Musikantoi.  
14:45 Albiste aurrerapena.  
15:15 Ikusten.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Didjeridu.  
16:15 Eltze beroa.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Calimero.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Erreportajea.  
18:15 Musikantoi.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Erreportajea.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.  
20:45 Berriak.  
21:15 Teknopolis.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Hitz bitan.  
22:15 Ilunpean.  
22:45 Berriak.  
23:15 Bergarako jaiak 07.  
23:45 Gaurkoak.  
23:30 Kirolari.  
00:15 Emisio amaiera.

**arrasate irrati**

FM 107.7

**> Hauteskundeen biharamuna 10:05**

Hauteskunde eguneko emaitzak, datuak eta protagonistak gerturatuko dizkigu Arrasate Irratiak. Herriko eta Debagoieneko datuen ondoren, alderdi irabazlearen eta bigarren geratu denaren balorazioak izango ditugu.

**Astelehenetik egubakoitzera**

10:00-12:00 Igo autobusera!  
Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Elkarrizketak  
Kirolen geltokia  
Zozketak  
Zorion agurrak  
(parte hartzeko: 943 71 17 31)  
12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo autobusera! (errep.)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
17:15 Zorion agurren tartea (errepikapena)


**Zapatua**

10:00 Asteko gainbegiratua.  
Aste osoan barrena egindako elkarrizketen eta gainontzeko edukien laburpena

**Domeka**

10:00 Asteko gainbegiratua

**gertutik**



**Joseba Iriondo**  
Kazetaria

**"Aurkezleak besteek egindako informazioa 'saldu' egiten du"**

**AMAIA ZALDUA > BERGARA**

12 urte zituela Zarautzera joan zen bizi izatera, baina bera izatez azpeitiarra da, eta egun Getxon bizi da. 1993an hasi zen Euskadi Gaztean, eta ondoren Madrilén hiru urte lanean ibili zen. 2003an *Palestina hotela* liburua argitaratu zuen, eta hitzaldiak ere egin izan ditu Iraken inguruan. Egun, albistegietako aurkezlea da.

**Zer izan da Irak zuretzat?**

Esperientzia pertsonal gogorra, baina aldi berean esperientzia profesional aberasgarria; eta ziurrenik, nire ibilbidean orain arte egin dudana lanik interesgarriena.

**Zerk bultzatu zintuen liburua idaztera?**

Horrelako gatazketan, eta gehienbat telebista bezalako komunikabide batentzat lan eginez, gauza asko gelditzen dira kontatu gabe, eta azkenean, terapia egiteko modu bat eta neure barrenean neuzkan hainbat kontu kontatzeko modu bat izan zen.

**Zer duzu nahiago, gerra-kazetari izatea ala aurkezle izatea?**

Gatazketako kazetari izateak ez du esan nahi albistean egotea; eta hori da egiten den akatsetakoa bat. Baina baten eta besteren artean askoz gehiago gustatzen zait hor zehar ibiltzea aurkezle izatea baino.

**Zergatik?**

Azkenean zeure burua kazetari grinarekin –baldin badaukazu– aseago sentitzen duzulako horrelako lekuetan, gauzak lehenengo eskutik emanaz eta gauzen lekuko izanaz, besteek sortutako informazioa nolabait "saltzearekin" baino. Aurkezlearen lana hori da: besteek egindako informazioa "saltzeko" gai izatea.

**Zer asmo dituzu gerora?**

Sinesten dut bizitzak jada norberaren pausoak idatzita dauzkala nonbait eta datorrena datorren bezala hartu behar dela. Ikusiko dugu; ni beti nago aldatzeko prest eta gauza berriak egiteko prest, jakin-min hori oraindik badudalako eta leku batean eta aulki batean atxikita gelditzea ez zaidalako batere gustatzen; eta gainera, denbora luzean gauza bertsua egiten arituz gero, neure burua mugatuta ikusiko nukeelako.

**asteko hitzorduak**

**Zinema**



ARRASATE

**> Gaur arratsaldean 'El buen pastor' izango da ikusgai Amaia Antzokian**

*El buen pastor* izeneko filma 2006an egin zen eta CIAren sorrera nolakoa izan zen azaltzen du. Pelikula hori ikusteko aukera izango da gaur arratsaldeko 20:30etik aurrera Arrasateko Amaia Antzokian.

**Hitzaldia**




ARETXABALETA

**> Eguenean, GII-ra egindako espedizioa izango da mintzagai**

Hilaren 31n, GII-ra egindako espedizioaren gaineko ikus-entzunezkoa eskainiko dute Mikel Sasiain aretxabaletarrak, Andoni Ormazabalek eta gainontzeko taldekideek. Hitzaldia 19:00etan izango da udaletxe zaharrean.

**Kontzertua**



ESKORIATZA

**> Egubakoitzean, Makala taldea izango dugu Inkernu tabernan**

Oraingo egubakoitzean, ekainak 1, Makala Sound System taldeak kontzertua eskainiko du Eskoriatzako Inkernu tabernan. Aitzorrotz Kultur taldeak antolatuta, musikaz gozatzeko aukera izango dugu 22:30etik aurrera.



## kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

## Eztei-bidaia zoragarria plazan

**I**majinatzen duzue eztei-bidaia Oñatiko plazan pasatu beharra? Ba, ia-ia hori gertatu zitzaion zapatuan Oñatiko Udaletxean ezkondu zen bikoteari. Behin udaletxetik atera, argazkiak egin eta autoan sartu zirenean bazkaritara joateko... plazako pibot guztiak altxatuta aurkitu zituzten! Eskerrak, udaltzainen bat oraindik udaletxean zela, eta hark jaitsi zizkielea pibotak. Hori sustoa!

Alde ona bilatzen hasita, egun zoragarri horiek oroitzapenean gordetzeko kamera beharrik ez zuten izango. Uda-

### "Julian Iantzi eta Iñigo Lopez de Alda aurkezleak Bergaran izan ziren egubakoitzean"

lak plaza inguruan jarri dituen kamerekin, bideo ederra egin dezakete-eta.

Egubakoitzean jaitsi zen **Bitorianatxo** eta, bihar arte, parrandaz parranda ibiliko da, zapi eta guzti. Jaiak ondo joan dira, hori bai, euripean. Jende mordoia pasa da Bergararik egun hauetan; egubakoitzean, esaterako, **Julian Iantzi** eta **Iñigo Lopez de Alda** telebistako aurkezleak izan ziren Bergaran. Beste urte batzuetan ere etortzen omen dira; Bitorianatxoren lagun zaharrak, beraz.

Zapatuan, ezkondu aurreko afari ugari izan ziren Bergaran. Koadrila batek *moja alai* mozarrotu zuen bere laguna, baina kondoi itxura handiagoa zuen, mojarrena baino. Ezkontzara itxura hobeaz joan dadila mutila...

### hildakoak

- **Pedro Jose Carrillo Carmona.** Eskoriatzan, maiatzaren 24an. 87 urte.
- **Josefa Larrañaga Loiola.** Oñatin, maiatzaren 24an. 77 urte
- **Maritxu Eguren Zabaleta.** Bergaran, maiatzaren 25ean. 73 urte
- **Felipe Letona Arexolaleiba.** Eskoriatzan, maiatzaren 25ean. 88 urte
- **Flora Daza Gomez.** Bergaran, maiatzaren 26an. 78 urte
- **Teodora Irurzun Gil.** Arrasaten, maiatzaren 26an. 79 urte

### asteburuko albuma



**Bertso bazkaria Portun.** Oñatiko gaztetxekoek antolatuta, bertso bazkaria izan zen zapatuan Portu tabernan. Bapo bazkaldu ostean, Aitor Mendiluze eta Sustrai Kolinak jardun zuten bertotan, librean, lehenengo, eta bazkari-tarako elkartu ziren 40 lagunek ipinitako gai eta ariketei erantzunez, gero. Bazkariak berak eta bazkaltiarrek nahikoa joko eman zien bertsolarietara, eta, gezurra badirudi ere, hauteskunde bezperan apenas izan zen gai politikorik mahai gainean.



**Txotxongiloak Santa Anan.** Elkar-Hezi ikastetxeko kultura jardunaldien baitan, guraso elkarteak txotxongilo emanaldia antolatu zuen zapatu arratsalderako. Euriak barrurako gonbitea egin zuen nonbait, eta ume dezente inguratu zen antzezlan ikustera. Panta-rhei taldeak *Alaia* lana eraman zuen Oñatira. Bost urteko mutiko batek hainbat zalantza argitu nahiko ditu eta, honela, bere bizitzaren lehenean eta geroan barrena bidaia egingo du.



**Arrasateko erretiratuen ospakizuna.** SUDCek antolatua Arrasateko erretiratuendako bazkaria izan zen zapatuan, Musakolako kiroldegian. 900 lagun inguru elkartu ziren, eta bazkalostea girotzeko dantzaldia egin zuten. Adinean gora joan arren, oraindik sasoiko daudela erakutsi zuten arrasatearrek. Bazkaritara joandako adinekoenak, gainera, opari bana jaso zuten. Emakume saritua 88 urteko Maria Sanchez izan zen; gizonezkoa, Ladislao Guinaldo, 96 urtekoa.

### ezkontzak



**Iñakiren eta Maiteren zilarrezko ezteiak.** Maiatzaren 22an bete ziren 25 urte Iñaki Roa arrasatearra eta Maite Perez errioxarra Bedoñan ezkondu zirela. Hain egun seinalatua senideekin ospatu zuten zapatuan. Meza entzun zuten lehenengo, eta etxekoek kantu, dantza eta bertsoz jantzi zuten ospakizuna. Ondoren, 40 lagunek bapo jan eta edan zuten Arrasateko Herri Gain elkartean. Etxekoek partetik, zorionak eta urte askotarako!

## PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: [astelehena@goiena.com](mailto:astelehena@goiena.com)

## ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 01**

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **100 euro.**

**Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.**





**zorion agurrak**



ESKORIATZA  
**Cristian**  
Maiatzaren 13an,  
2 urte. Zorionak,  
etxekoan partetik!



ARRASATE  
**Ane Iria**  
Maiatzaren 18an, 4  
urte. Zorionak,  
famiakoan partetik!



ARETXABALETA  
**Xabi Perez Gaztañaga**  
Maiatzaren 22an, 4  
urte. Zorionak eta  
patxo handi bat, aita-  
txo, amatxo eta  
lkerren partetik!



ARRASATE  
**Aitor Iraeta**  
Maiatzaren 24an, 10  
urte. Zorionak,  
etxeko guztien  
partetik!



ARAMAIO  
**Ane Arrizabalaga**  
Maiatzaren 24an,  
urtebetetzea.  
Zorionak eta muxu  
handi bat, etxekoan  
partetik!




ARRASATE  
**Unax Urizar**  
Maiatzaren 26an,  
4 urte. Zorionak,  
Arizmendi Sanvi  
Txikiko lagunen  
partetik!



BERGARA  
**Paula Arantzabal**  
Maiatzaren 26an,  
14 urte. Zorionak  
eta muxu handi bat,  
gurasoen partetik!



ARETXABALETA  
**Janire Altube  
Iturricastillo**  
Maiatzaren 27an,  
6 urte. Zorionak  
eta muxu handi  
bat, etxeko guztien  
partetik!



ARRASATE  
**Lorea Belategi  
Martinez**  
Maiatzaren 28an.  
Etxeko guztiek zure  
bigarren urtebete-  
tzean bi muxu handi  
bidaltzen dizkizute.



ARRASATE  
**Natali Martinez**  
Maiatzaren 28an,  
urtebetetzia!  
Zorionak, Nata! Eta  
mendi bueltetan,  
eskakeo gehiago  
ez! Goienako zure  
lagunak.



ARRASATE  
**Oihana Jausoro**  
Maiatzaren 28an.  
Zorionak, tia  
Oihana, zure loben  
partetik!  
Muxu asko!



ARETXABALETA  
**Alaitz Beltran de  
Heredia**  
Maiatzaren 28an, 8  
urte. Akordatu  
barik zoaz aurrera,  
irribarre goxoa  
ahoa duzula.  
Zorionak, maitea,  
eta jarrai horrela!



BERGARA  
**Aimar Salaberria**  
Maiatzaren 28an,  
urtebetetzea.  
Zorionak eta muxu  
handi bat, familia-  
ren partetik, berezi-  
ki Aitor, Sara eta  
June.



BERGARA  
**Ruben de Lucas**  
Maiatzaren 28an,  
2 urte. Zorionak eta  
muxu handi bat!  
Gurasoak eta anaia  
Dani.



OÑATI  
**Hegoa Larrea**  
Maiatzaren 29an,  
urtebete. Zorionak,  
txipristin! Patxo  
pottolo bat etxe-  
kuen partetik.



BERGARA  
**Ana Etzaniz**  
Maiatzaren 29an, 13  
urte. Zorionak eta  
muxu handi bat!  
Mikel, Leire eta  
gurasoen partetik.



OÑATI  
**Olatz Zabarte**  
Maiatzaren 30ean, 11  
urte betetzen ditu.  
Zorionak eta muxu  
handi bat. Gurasoak  
eta ahizpa Leire.



ARRASATE  
**Hanna Morenweiser**  
Maiatzaren 31n,  
3 urte. Zorionak,  
maitia, wir lieben  
dich, alles Gute  
zum 3. Geburtstag.



ARRASATE  
**Rosa Aranzabal**  
Maiatzaren 24an.  
Zorionak Arizmendi  
Sanvi Txikiko ikasle  
eta irakasle guztien  
partetik! Muxu  
handi bat!




ARAMAIO  
**Rosa Mondragon**  
Maiatzaren 24an,  
urtebetetzea.  
Zorionak!



ARRASATE  
**Leire Varela**  
Maiatzaren 25ean,  
3 urte. Zorionak  
Arizmendi Sanvi  
Txikiko lagunen  
partetik!



BERGARA  
**Ane Larrañaga**  
Ekainaren 1ean, 3  
urte. Zorionak eta  
muxu handi bat,  
etxekoan partetik!



ESKORIATZA  
**Hodei Some**  
Zorionak! Joe, 31an  
23 urte ja. Ondo  
pasa, Mia eta zure  
koadrilakoan partetik.  
Bueno, bueno,  
bueno, Marikarmen!  
Ja, ja!



ARRASATE  
**Pablo Rozas**  
Maiatzaren 21ean. Zorionak, Martxel, Bingen eta bestean partetik! Ea noiz egiten dugun beste etxola bat, aspaldiko mendi irteera horietako bat. Besarkada bat.



BERGARA  
**Ander eta Mikel Lasa Murgizu**  
Anderrek (goian) 7 urte betetzen ditu hilaren 28an, eta anaia Mikelek (behean) 14 egin zituen hilaren 11n. Zorionak, familia osoaren partetik!

**jaiotakoak**



**Malen Barkero Romero**  
Bergara > 3,250 kilo. Maiatzaren 22an. Gurasoak: Silvia (Bergara) eta Angel (Bergara). Argazkian, Malen txikia, amarekin.



**Unai Garcia Moren**  
Arrasate > 3,080 kilo. Maiatzaren 23an. Gurasoak: Maite (Arrasate) eta Iban (Arrasate). Argazkian, Unai txikia, gurasoen besoetan.



**Andoni Diaz Gonzalez**  
Bergara > 2,960 kilo. Maiatzaren 23an. Gurasoak: Monica (Arrasate) eta Raul (Arrasate). Argazkian, Andoni jaioberrria, amaren besoetan.



**Leire Melendez del Palacio**  
Arrasate > 3,320 kilo. Maiatzaren 24an. Gurasoak: Azucena (Arrasate) eta Guillermo (Arrasate). Argazkian, Leire jaioberrria, amaren besoetan.



**Helene Valcarce Elkoroiribe**  
Oñati > 3,950 kilo. Maiatzaren 24an. Gurasoak: Miren (Oñati) eta Jose Luis (Oñati). Argazkian, Helene txikia, kumatxoan lasai-lasai.



**Ander Oregi Alberdi**  
Bergara > 3,700 kilo. Maiatzaren 25ean. Gurasoak: Ainara (Bergara) eta Aitor (Bergara). Argazkian, Ander jaioberrria, bere kumatxoan.



**Araitz Urtzelai Zabala**  
Oñati > 3,200 kilo. Maiatzaren 25ean. Gurasoak: Mari (Aretxabaleta) eta Iker (Oñati). Argazkian, Araitz txikia, aitaren besoetan.



**Amaia Catania Lopez**  
Arrasate > 3,810 kilo. Maiatzaren 26an. Gurasoak: Elisa (Aretxabaleta) eta Mario (Aretxabaleta). Argazkian, Amaia jaioberrria, kuman lo.

BABESLEA

**IKUSI  
MAKUSI**

Umeen  
paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32



Nerea Alias > ETB-ko 'Egin Kantu!' saioko aurkezlea

# "Oraindik ere abila naiz kafeak egiten"

JOKIN ETXEBARRIA > BERGARA

**Betizu** programan egin zen ezagun Nerea Alias. Gaur egun, kantariak aurkezten dabil plazaz plaza **Egin Kantu!**-n, eta eguenean Elgetan egon zela aprobetxatu dugu berarekin berriketan egiteko.

**Kanta programa bateko aurkezlea izanda, kantatzea gustuko izango duzu, ezta?**

Oso gustuko dut, txikitatik gainera. Ez dut oso ondo abesten, baina ahalegintzen naiz ahalik eta ondoen egiten.

**Egin Kantu!**-ra aurkeztu behar bazenuke, zein kanturekin egingo zenuke?

Ez dakit. **Sarri-Sarri**ekin edo horrelako zerbait; kanta euskalduna, ezaguna eta dantza egiteko alaia den bateren batekin.

**17 urterekin Euskal Herriko Kantu Txapelketan parte hartu zenuen.**

Bai, talde moduan parte hartu genuen, lagun batzuekin osatutako talde baten. Musika eta panderoa eta abar jotzen genuenez, aurkeztea erabaki genuen eta

nahiko ondo ibili ginen. Esperientzia oso polita izan zen herriz herri lehiatzen ibiltzea.

**Zer sentitzen du pertsona batek, Euskal Herriko haur gehienak berari begira egongo direla jakitean?**

Egia esan, ez dut horretan pentsatzen; bestela, gainera, akaso ez nintzateke kapaz izango. Baina egia da oso polita dela haurrekin lan egitea, eta urduritasun horrek, aldi berean, poza sortzen dit. Haurrak begira egongo direla pentsatzeak ez dit inongo traumarik sortzen.

TEST-A

**Herria:** Anoeta. **Adina:** 23 urte. **Ikasketak:** Batxilergo arteko ikasketak dauzkat eginda. **Zaletasunak:** Hondartzan egotea, lagunekin ibiltzea eta erosketak egitea. **Musika talde bat:** Edozein euskal talde; musika euskalduna oso gustuko dut. **Liburu bat:** *Poxpolo kaxa bat bezela*, Patxi Zubizarretarena. **Abraham Olano:** Txapelkun bat. **Egin kantu!:** Beste txapelkun bat.

**Mutil askok arazoak omen dauzkate arratsaldero Egin Kantu! zergatik ikusten duten etxean azaltzeko...**

Niri gustatzen zait egiten dudana programa, eta ez zait horren arraroa iruditzen. Euskal Herrian, nahiko lotsatiak izan arren, kanturako zaletasun handia daukagu, eta besteak barregarri nola gelditzen diren ikustea gustatzen zaigu. Beraz, nik normaltzat jotzen dut **Egin Kantu!** arratsaldero ikustea.

**Etxean, programan bezain beste aldatzen zara arropaz?**

Ehhh! Igual bai. Gustatu egiten zait arropak probatzen ibiltzea, baina programan erabiltzen dudana baino arropa informalagoa janzten dut normalean. Ez naiz horren poxpolina.

**Kafe goxoak ateratzen al dituzu oraindik?**

Noski baietz! Noizean behin joaten naiz lehen lan egiten nuen tabernan laguntzera, eta oraindik ere abila naiz kafeak egiten. Denak zaudete gonbidatuta kafe bat hartzera!




ALIAS Euskal kantuarak ditu gustuko Nerea Aliasek.

IRATI AGIRREAZALDEGI

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)

**Aurkeztuko zinateke telebistako abesti, dantza edo antzerako lehiaketa batera?**



**biharamuna**

Juan Kruz Mendizabal

## San Martzialgo txakur handia


**U**da partean San Martzial ermitako atea norbaitek hautsi ondoren aurreko aste honetan konpontzen saiatu gara. Txukun geratuko dela uste dut, tokiak eta elizatxo berak merezi duen tankeran. Orain hila-bete bertan izan ginen ateari neurriak hartzen behar bezala konpontzeko. Ateak dituen hiru sarrailetako baten atzean, ertzean txanpon bat ageri zela jabetu nintzen. Ateratzen saiatu nintzen, baina ez nuen asmatu. Aurreko astean, makila batekin zirikatzen ibili ondoren, hara non atera zen belzututako txanpon zahar bat. Zaharra zen, zikina, atea samurtzeko olioz bustia,



garai batean itsulapikotik alde egindako txanpona. Urtetan ezkutaturik egondako txanpona esku artean nuen. 1878ko txanpona dela ikusi dugu, kobrezko txakur handia.

Zenbat urte izango dira txanpon hura ezkutan geratu zela? Nork bota zuen propina hura? Urteak igaro dira. Baina, doan jasotako ondarea, gure aurrekoek egindako ahalegina eskertzea tokatzen zaigu egunero eta San Martzial eguenean bertara joatean. Aurrekoei esker bizi baikara, gure aurrekoen ahalegin handi eta txikiei esker baitugu bistan duguna. Hamar zentimo, garai hartarako asko izango zen. Orduko partez, eskerrik asko, lagun!

**eguraldia**



MINIMOA  
**+08**

MAXIMOA  
**+15**

Hodeitsu izango da eguna, zaparradak arinak eta urriak izango dira eta, tarteka, oskarbiguneak ere zabalduko dira.

[www.euskalmet.euskadi.net](http://www.euskalmet.euskadi.net)

**San Miguel**  
DEKORAZIOA ETA ISOLAMENDUA

Norberaren babeserako ekipamenduak eta lanerako arropak  
Zeramika erakusketa eta salmenta

Zapatu goizetan irekita

Amillaga 5-6 pabilioilla - BERGARA Tel.: 943 76 47 90 - faxa: 943 76 01 15 Zentralita: 649 98 16 70